



Zuzia

HATZIESIA APUZTUZ, BIDEA ZABALDUZ

10. Zenbakia.

2022ko abendua.

BERRIAK



MUGAK GAINDITUZ, EUSKAL HERRI SOZIALISTA ERAIKI

Euskal Herri Langileak frantziar eta espainiar estatuen aldetik pairatzen duen zapalkuntza ikusarazteko eta salatzeke, JARKI antolakunde iraultzaileak mobilizazioa burutu zuen Iruñean, abenduaren 6an, Espainiako Konstituzioaren egunean, alegia.

Izan ere, Euskal Herriko langile-ontzat eguneroko azpirazioa zilegitzeko saiakeraren erakusgarri argienetakoa dela ulertzen du antolakunde iraultzaileak. Mobilizazioa, Hego Euskal Herriaren ikuspuntura mugatzeaz haratago, frantziar zein espainiar

estatuek Euskal Herriaren aurka jotzeko inposatzen duten marko legala agerian uzteko burutzen; baita hauen aurka eman beharreko prozesu iraultzailea klabe nazionalen bakarrik ulertu eta jorratu daitekeela azpimarratzeko ere. Alta, Euskal Herria

azpiratuta mantentzen duten bi estatuek inposatutako marko le- galak hauen konstituzioetan du iturria, hauek direlarik estatuek eta bertako burgesiak Euskal Herri Langilearen aurka jotzeko orduan euren neurrirako legalit-atea izatea ahalbidetzen dutena. Ildo horretatik, Euskal Herriko langileon arteko harremanak baldintzatzea edota moztea xede izanik, estatuek inposatzen dituzten izaera ezberdinetako mugak azalaraztea izan du hizpide aurtengo manifestazioak. Antolakunde iraultzailearen arabera, mugok Euskal Herri Langilea frantziar eta espainiar estatuetako makinaria kapitalistako lan indar gisa bere erabateko integrazioa lortzera bideratuta daude. Horrela, asimilaziorako beste tresna bat dira, euskal herriko langileok nazio izaerari uko egitea xede duena. Bide horretan, estatuek euskal nazio identitate osatzen duten baldintza objektiboen aurka jotzeko abiarazitako neurriak aipatu zituen, euskarak Euskal Herria banatzen duten administrazio zein lurralde ezberdinetan pairatzen duen egoera baliatu zuelarik hau era

argian irudikatzeko.

Halaber, estatuetako instituzio eta eragile ezberdinek Euskal Herri Langilearen aurka hau azpiratuta mantentzeko era sistematikoan darabilten estrategia salatu zuen, konstituzioak estrategia honi oinarria emateko abiapuntua zirela azalduz. Izan ere, hauek dira Euskal Herri Langileak klase zein nazio parame- troetan menderatuta mantentze-ko estatuek baliaturiko jazarpe- na legezko bihurtzen dutenak, zilegitasun itxura emateko asmoarekin. Era horretan, antola- kunde iraultzaileak estatu kapi- talistek Euskal Herrian inposa- tutako markoarekiko apurketa politikoaren beharra azpimarratu zuen. Horretarako, Euskal Herri Langilearen klase interesak ase ditzakeen eta pairatzen duen klase zein nazio zapalkuntzari a- terabidea eman diezaiokeen a- terabide bakarra Euskal estatu independente eta sozialistaren eraikuntza dela aldarrikatu zuen. Hain zuzen ere, Euskal Herriko langileon boterea garatzea ahal- bidetu behar duen estatua, lan- gileon antolakuntza eta langile- ok eraikitako instituzioak oinarri

izan behar dituen estatua, ale- gia.

Bide horretan, estatu zapaltzai- leekiko konfrontazioan eraikita- ko kontraboterearen beharra az- pimarratu zuen antolakunde i- raultzaileak, erdibideko planteamendu erreformistak burgesia- ren mesedepekotzat jotz eta era- bat alboratuz. Horrela, abendu- aren 6ko mobilizazioa Euskal Herri Langileak pairatzen duen jazarpena salatzeke eta apurke- ta politikorako zein antolatzeke deia luzatzeko baliatu zituen an- tolakunde iraultzaileak.



JARDUN-EN LANKETA ANTIERPRESIBOA GORPUZTUZ DOA

Maiatzaren 7an publiko egin ze- netik, hamaika dira ASKE antola- kunde antierpresiboak burutu dituen ekimenak. Bide horretan, JARDUNen baitan, errepresioari aurre egin, eta horren inguruko lanketa ideologikoa egiteko tres- na eraginkor gisa gorpuzteko pauso sendoak ematen ari da. Urriaren 12aren harira, indar o- kupatzaileen aurkako mobiliza- zioak egin zituen Euskal Herriko lau lurraldeetan. Iruñeko mobili-

zazioa zela eta, urriaren 20an espainiar estatuak dinamikari e- rantzunez JARDUN-eko kide bat eta Iruñeko bizilagun bat atxilotu zituen. Kolpe errepresibo horrek egunean bertan izan zuen eran- tzuna, ASKE-k atxilotetak sala- tzeko manifestazioa egin baitzu- en Iruñean. Aipatu beharra dago JARDUN-eko bi kide gelditu zi- tuztela Gasteizen, mobilizaziora- ko propaganda egiten ari ziren bitartean. Izaera arbitrarioko

kontrol hori ordubete luzatu zen, eta bi kide horiek euren militan- tzia politikoaren ondorioz identi- fikatuak eta erregistratuak izan ziren. Hori gutxi balitz, zipaioen partetik irainak, isekak eta herio- tzamehatxuak pairatu zituzten. Bestalde, urriaren 22an, Amnis- tia egunaren harira egitarau o- paroa antolatu zuen Leitzan. Horretarako, "Amnistia eta erre- presioa iraganetik gaurkotasu- nera" lelopean mahai-inguruaren



bitartez, amnistiaren iraganeko lanketa eta ikuspuntua zein egungo ikuspuntu eta erronkak eduki zituzten solasgai. Horren ostean, herri bazkaria egin zen. Arratsaldean, mobilizazioa burutu zuten Leitzan barrena, eta, gaurkean kontzertuekin amaitu zuten. Era horretan, antolakunde antierpresiboak lanketa ideologikoa, aisialdia eta mobilizazioa uztartu zituen urriaren 22ko

Amnistia Egunean. Bestalde, ASKE-k kontzentrazioa burutu zuen abenduaren 2an, Bilbo Zaharreko San Anton zubian, 2019ko azaroaren 5ean Vox-ek Atxurin burututako meetinaren harira mobilizatzearen ondorioz epaituak izan behar diren antifaxistekiko elkartasunean. Kontzentrazioa abenduaren 5ean gauzatu behar zen epaiketa zela eta egin bazen ere, ASKE-ko

kideek bertan azaldu zuten epaiketa atzeratua izan dela, epaiketa Audientzia Probintzialera igaro delako. Hala ere, epaiketa hau Vox-eko faxistak Euskal Herriko mugimendu iraultzailearen aurka burutzen ari diren izaera judizialeko jazarpenera bideratutako estrategiaren baitan kokatu zuen ASKE-k.



ZER DAGO INDARKERIAREN ATZEAN?

JARDUN-en baitan gorpuzten ari den ekimen feminista Azaroaren 25aren, hots, emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako egunaren harira kanpaina komunikatiboa burutu zuen, Euskal Herrian zehar.

Kanpaina horretan, egun horren lanketaren zergatia ekarri zuten gogora, Mirabal ahizpak, "Tximeletak", gogora ekarrita. Halaber, hedabideetan oihartzuna duten ziztadak, bortxaketak eta erailketak emakume langileak bere egunerokotasunean pairatzen

dituen muturreko erasoen adierazpen gisa kokatu zituzten; bertiere, horiek gertakari isolatuak ez direla azalduz.

Ildo horretatik, emakume langileak pairatzen duen indarkeriaren iturrira jo zuten, eta sistema kapitalistak emakume langileak bere interespean bigarren mailan alboratuta mantentzeko baliztatzen duen sexu-genero zapalkuntzaren bitartez ezarritako rola salatuz. Hori dela eta, sistema kapitalista indarrean dagoen bitartean, emakume langilearen

aurkako biolentziak indarrean jarraituko du, honek gizarte eredu kapitalistak birproduzitzen dituen heinean.

Gauzak horrela, emakume langileak pairatzen duten zapalkuntzarekin bukatzeko sistema kapitalista gainditzeko halabeharrezko baldintza gisa kokatu zuten, borroka ideologikoa eta antolakuntza hau gainditzeko hila biziko egiteko gisa identifikatuz.



ALEXIS, AGUR ETA OHORE

Asko dira Alexis Castillori erreferentzia egiteko orduan baliagarritasunak adjektiboak. Eta, ziur asko, hurrengo lehenengo aipatuko ditugunak motz geldituko dira, baina beharrezko omenaldia egiteko idatzia dira.

Komunista konprometitu eta koherente gisa, internazionalismoa oinarri, Donbasseko herri langilearen aldeko borrokan bizitza eman zuen Alexisek urriaren 28ko eguerdian. Donetskeko aierportuko ipar-ekialdean posi-

zioa babesten ari zenean, ukrainarren artilleriaren su eraso gogor baten ondorioz zendu zen, beste hiru kiderekin batera. Bere borroka, konpromisoaren erakusgarri izateaz haratago, edozein militante iraultzaile gidatu behar duen internazionalismotik eratorritako elkartasunean kokatu behar da. Lubakiaren lehen lehen aritzeaz gain, Alexisek ez zion muzin egin ez borroka ideologikoa, ez fronteko lanei, Donbasseko egoera eta bertako lan-

gile klasearekiko elkartasuna zabaltzeko deman aritu zelarik gau eta egun.

Lan horren emaitza da 2022ko martxoan 6. Zuzian JARKI antolakunde iraultzaileari eskaini zion elkarriketa. Hurrengo puntuan berriro argitaratzeko erabakia hartu dugu, beraz esan genazakeenaz haratago, berak esateko zuena garrantzitsuagoa zela iritzita.

Adiorik ez. Agur eta Ohore, Alexis!



Alexis Castillo, Kolonbian jaioa, Murtzian bizi zen Ukrainiako gatazka hasi zenean. 26 urte zituela, Donbasseko eskualdera joan zen borrokatzera. Gauzak horrela, urriaren 2014ko urriaren 15-etik dago Donbassen. Une honetan, Donetskeko herri errepublikako soldadua da. Bere lehenengo batailak Yasinovata eta Donetskeko aireportuak izan ziren, 2014-2015 bitartean. Aipatu beharra dago Lugansken ere egon izan dela misio bat burutzen, bere gainerako borroka Donetsken garatu duelarik. Urte hauetan zehar, larriki zauritua izan da mina baten zartaldiaren ondorioz metrailagatik jota. Elkarrizketari dagokionez, aintzakotzat hartu behar da JARKI antolakunde iraultzaileak urtarilaren 20an ailegarazi zizkiola galderak Alexisi, momentu ho-

rretan ahaztuta zegoen Donbassen gatazkaren inguruan informazioa zabaltzeko asmoarekin. Hala ere, gerora errusiar armadaren interbentzioaren testiguan kokatu behar dugu elkarrizketa honen garapena. Hori dela eta, Alexisek, hasiera batean email bitartez idatziz jasotzea aurreikusita zeuden galderak, ahal izan duen moduan ailegarazi dizkio antolakunde iraultzaileari, bai txataren bitartez, bai audio ezberdinen bitartez. Alexis borrokalaria antifaxista frontean aritzeaz gain, bere konpromiso internazionalistaren beste adierazgarri bat da Euskal Herrian Donbassen inguruko egoera eta informazioa zabaltzeko egiten duen ahalegina. Jasotako audioetan denbora tarterik ez duen frontean diharduen edozein borrokalariren nekeaz haratago,

komunista baten erabateko konpromiso militantea antzematen da aurrera daraman borrokarekiko.

Mendebaldeko prentsak Euromaidan bezala izendatu zuena zertan oinarritu zen eta gatazkari hasiera emateko orduan zer suposatu zuen azal diezagukezu?

Benoa, nik uste dut, 8 urtetan gertatu dena eta Ukrainako gatazka hobeto ulertzeko, denboran atzera egin beharra dagoela. Horretarako, Ukrainaren beraren eraikuntza zelan eman eta gauzatu zen aztertu beharra dago. Ukraina herrialde gaztea da. Bere lur gehienak Leninen eta Stalinen iraultzaren osteko sobietar sasoian lortu izan ziren eta azkeneko lurrak, 50eko hamarkadan lortu zituen, Errusiako Errepublika Sobietarrak Krimeneko penintsula oparitu zionean. Hau ilegalki eman zela esan beharra dago. Hori dela eta, herri honen eraikuntza beste herri batzuen zatiketarik eman dela ulertu behar dugu, oso nazionalitate ezberdinetan oinarritutako eraikuntza nazionala eduki duelarik. Sobietar Batasunaren gainbeheraren ostean, mendebaldeko hedatze inperialista ofentsibara pasa zen. Nolabait esatearren, Europako ekialdean herrialde asko NATOren eta Europar Batasunaren orbitara igarotzen hasi ziren apurka-apurka. NATO ez zuen, Jugoslaviaren kasuan bezala, modu militarrean lortu bakarrik, izaera "biguneko" gerra eta estatu kolpeen bitartez baik. Hortaz, egungo Ukrainaren egoera, Europar Batasunaren eta NATOren ekialderako hedapena-

ren inertziaren ondorio bezala kokatu behar dugu, Errusiak egun mantentzen duen jarrera bera ez zuen testuinguru batean. Izan ere, 2014an Errusiak Yanucovich presidentea bere alde lerratzea lortu zuen. Hau hasiera batean Europar Batasunarekin negoziatzen ari bazen ere, Errusiaren orbitara jo zuen merkataritzarako eskaini zizkion baldintza ekonomiko hobeak zirela eta. Orduan, Yanucovichek Europar Batasunarekin zituen intentzioei uko egin eta hurbilketa-prozesua eten zuenean hasi ziren Euro- Maidan deritzen protestak. Pro- testa horiek politikoki zein eko- nomikoki Europatik hurbilago egon nahi zuten pertsonen es- kutik hasi ziren, beraz. Horre- lakoetan gertatzen den legez, mobilizazio hauek guztiak Men- debaldearentzat manifestazio demokratikoak ziren. Badakigu zelakoa den Mendebaldearen diskurtsoa zer bait interesatzen zaionean, super demokratiko gi- sa irudikatzen dute eta horixe da, hain zuzen ere, Ukrainan zein koloretako bestelako herrialde- etako koloretako iraultzekin egin zutena.

Hor hasi zen, nire ikuspuntutik, gatazka armatuari hasiera eman zion inflexio puntua. Ez egungo ukrainar eta proerrusiar aldeeta- tik, zenbait manifestari eta euren oldarkortasuna eta honetatik de-

fendatzen ari zen garaiko gober- nu eta estatuagatik baizik. Mani- festari oldarkor horien buruan, bai Estatu Batuek, bai Europar Batasunak finantzaturako ultra- nazionalistak zeuden. Gatazka- ren hasieran, tiro eta koktel mo- lotoffen artean, poliziak zein ma- nifestariak bizitza galtzen hasi ziren. Aipatu beharra dago, tes- tuinguru horretan aurretik e- mandako fenomeno bat errepika- tu zela. Egoerak gainezka egin zezan, alde bietako pertsona ez- berdinei tiro egin zuten espezia- listak edota frankotiratzaileak a- ritu ziren eraikinen goialdeetan. Guzti honetaz hitz asko egin da eta, gainera, erabat egiaztatuta eta argitaratuta dago. Honen e- raginez, estatuak egoeraren gain zuten kontrola zartarazi eta biz- tanleria bere aurka jarri zen.

Egoerak gainez eginda, Yanuco- vich presidenteak ihes egin zu- en, oposizioak boterea hartu zu- elarik estatu kolpea gauzatu. Orduan hasi zen, hain zuzen ere, estatu kolpe hau ematerakoan boterea hartu berri zuten politi- karien barne garbiketa, estatu- aren baitako lehengo gobernuko elementuak purgatu. Une ho- rretan hartu zuten bai Donetsk, Lugansk eta bestelako eskual- deek inizatiba eta independiza- tzeko erabakia, eta orduantxe

hasi zen da Ukrainan egungo gatazkari hasiera eman zion o- perazio antiterrorista.

Maiatzaren 2an Odesan zer ger- tatu zen azal diezagukezu?

Odesan maiatzaren 2an gertatu- takoa aurretik azaldutako testu- inguruan kokatu beharra dago. Estatu kolpeari erantzuteko ma- nifestazioak egon ziren leku ez- berdinetan, horien artean, Ode- san. Bertan tankera ezberdinetako jendea zegoen, antifaxistak barne. Kieven eman zen estatu kolpearen kontra zeuden pertso- na hauek eta gertatzen ari zena- ren aurka protestatzen ari ziren. Egun horretan futbol partida bat egon zen. Ez dut ondo gogo- ratzen zein taldek jokatzeko zuten, baina garrantzitsuena da talde horien jarraitzaileen artean beti- danik egon izan direla ultrana- zionalistak, Pravy Sector antola- kunde paramilitar ultranazona- listaren parte direnak, hain zu- zen ere.

Jarraitzaile hauek manifestazio batean elkartu ziren maiatzaren 2 horretan, Kieveko estatu kol- pearen kontra kontzentratuta zeuden pertsonak zeuden leku- aren aurka jo zutelarik. Kontzen- tratutako pertsona hauek euren burua inguratuta ikusterakoan, Sindikatuen Etxea bezala ezagu- tzen den eraikinean sartu ziren.



"Sobietar Batasunaren gainbeheraren ostean,
mendebaldeko hedatze inperialista ofentsibara
pasa zen."



• 2014ko maiatzaren 2a, Odessa

Hau sobietar iraganeko herrialde ezberdinetan aurki dezakegun ohiko eraikina da, tamaina handiko kultur etxe bat bezalakoa da, antzoki bat azken finean...

Beno, gauza da jendea bere burua babesteko sartu zela bertan eta, une horretan, ultranazionalistek eraikina inguratu eta koktel molotoffak jaurtitzeari ekin zioten, baita eraikinaren aurka tiro egin ere. Sutan zegoen eraikinetik ihes egiten saiatu zirenak kolpeka erail zituzten. Egun inork ez daki oraindik hildakoen kopurua, ez baitzen inolako ikerketarik abiarazi. Ez da egon inolako atxilotetarik, ez erailketengatik ezta beste edozelako karguengatik ere. Baina badakigu han egondako gizon batek esan zidaren arabera, gutxienez 80 eta 100 pertsona ari garela. Desagertuak, erreak, tirokatuak, kolpeka erailak izan ziren 80-100

pertsona. Hori da maiatzaren 2an Odesan gertatu zena.

Internazionalista moduan, zerk bultzatu zintuen zure bizitza utzi eta Donetsk eta Luganskeko borroka babestera?

Donetskera joan aurretik, Espainian nengoela, ni militante komunista nintzen, ez PCEkoa baina bai beste alderdi batekoa. Honetaz gain, bestelako antolakundeen parte ere banintzen. Antolakunde sozial ezberdinetako aktibista nintzela esan liteke, horien artean, nire eskualdeko koordinadora anti-faxista batekoa. Dena hasi zenean, manifestazioak hasi zirenean, gertutik jarraitu genituen hauek. Asko irakurri genuen Euromaidanen manifestazioen inguruan. Gainera, Ukrainako jendea ultranazionalistak Euromaidaneko mobili-

zazioen baitan indartsu egiten ari zirela esaten hasi zitzaigun. Egoeraren jarraipena burutzen genuen.

Gertatzen ari zena salatzeko burutu genuen lehenengo mobilizazioa maiatzaren 2ko gertakarien harira izan zen. Kontzentrazio bat eta manifestazio informatibo bat burutu genituen egun horretako biktimen alde. Egoera horretan, zenbait pertsona, ni tarteko, Ukrainara bertaratzear hitz egiten ibili ginen, ahal genuen eran laguntzeko, ekainean etortzea erabaki genuelarik. Azkenean hiru izan ginen etortzea erabaki genuenak. Hegaldiaren bidaia-txartelak erosi genituen eta Bartzelonatik irtear geundenean nik pasaportea maletan utzi nuen... Ergela ni, bai. Horrela, ni bertan geratu behar izan nintzen bitartean, beste bi kideek Kievera bidaiatu

zuten. Garai horretan mugak ez zeduenek hain zehaztuta Kievera bidaiatu eta gero, Donbassera laguntzera etortzeko aukera zenuen eta nire bi kideak miliziano moduan aritu ziren.

Ni etxera bueltatu nintzen, bi daia-txartel berria ordaindu ahal izateko lana bilatu nuen eta urriaren ailegatu nintzen, 2014ko urriaren 15ean, zehazki. Eta zergatik erabaki nuen hona etortzea? Nazionalistak egiten ari zirena ikustean... Ez bakarrik maiatzaren 2an, orokorrean aurrera eramandako desagerpenen, sarraskien... ondorioz erabaki nuen etortzea. Haiei aurre egiteko,

pertsona hauek ez dutelako guk zapaltzen dugun mundua zapaltzea merezi pentsatzen dudalako.

2014an, gerraren hasieran, zenbait sektorek Donbasseko eskualdean gertatzen ari zena klase gatazkaren logikan gauzatzen ari zela esaten zuten. Benetan uste duzu horrela izan zela?

Egun bizi dugun egoera eta murgilduta gauden gatazka Errusiako eta Mendebaldeko eragin eremuen arteko talkaren ondoriozko testuinguru politikoa eta ekonomikoa da. Donbasseko

jendearen artean zenbait sektorek, kontzienteagoak zirenak, estatu baten abiaraztea aukera onena zela zeritzoten. Hori dela eta, prozesu horretan sektore estrategiko ezberdinetako langileak, alderdi komunista eta sindikatuak hau babestera mugatu beharrean, estatu baten egituratzeari ekin zioten, Donbasseko langileei erabateko boterea eman diezaiokeen proiektu zela zeritzoten eta. Zeritzotela esaten dut ni ez nintzelako estatuen eraikuntzaren parte izan. Tesitura horren baitan, errepublikak klase gatazkaren emaitza direla esan dezakegu. Izan ere,



• Azov bataloi naziko kideak

buruan zeukaten eta oraindik ere indarrean dagoen proiektua, errepublika hauen existentziarekin oraindik bukatu ez dena, bertako langileentzako bizi baldintza hobeak eskaintzea helburu zuen konstituzioa zen, bertoko langile klaseari aukerak eman behar ziena eta euren egoera hobetzea xedetzat zuena. Hori dela eta, zentzu horretan, Donetsk eta Luganskeko herri errepubliken existentzia klase gatazkaren emaitza dela deritzot.

Zein da Donbasseko herritarren motibazioa gerra honetan borrokatzeko? Zer interes daude gerra honen atzean? Zer interes zeukan NATOk Yanucovichen aurkako kolpea babesterako orduan?

Orokorrean, errepubliken defentsara bultzatzen duten arrazoiek Donetsk eta Luganskeko lurren defentsa dute oinarri. Ukrainako gobernuak operazio antiterrorista gisa izendatutakoaren aurreko defentsa, alegia. Izan ere, kontuan eduki behar da hau

bonbardaketen nahiz tankeen eskutik abiarazi zutela, eta jendeak, noski, armak hartzeko hautua egin zuen, biztanleriaren gehiengoak defentsa babestu zuelarik. Hortaz, jende gehiena ez zen arrazoi politikoengatik mobilizatu, euren lurraren eta familien defentsarengatik baizik. Egia da gero proiektu politikoak osatzen joan zirela eta oraindik ere existitzen direla, baina jendea mobilizatu zuena, bere lurra-ren defentsa izan zen, azken finean.

Ukraina azpiratzeko interesak era askotakoak diren arren, ekonomikoak dira, batik bat. Ekonomikoak dira, Ukrainak europarrentzat lan indar merkea baitu, hemen soldadak ez direlako Europan bezalakoak. Horrez gain, lurra oso emankorrak dira, oso ezaguna den lur beltza daukate eta. Emankortasun horren adierazle da, Hitlerren sasoian naziek Ukraina okupatuta mantendu zu tenean, lur asko eramán izana. Horretaz gain, baliabide mineral asko daude,

ikatz eta horrela-koak bezalakoak. Baliabide pila dituen lurra da hau.

Benoa, hori ekonomikoari dagokionez. Estrategikoki, Ukraina, NATOren egitura militarra errusiarren ate parean kokatzen dituen herrialdea da.



"Ez bakarrik maiatzaren 2an, orokorrean aurrera eramandako desagerpenen, sarraskien... ondorioz erabaki nuen etortzea."

Kontuan hartu beharra dago, Errusiak Sobietar Batasunaren erorketa-rekin batera, Mendebaldearekin NATOa ez zela hedatuko adostu zuela, eta hedapen hau egoerak gainezka egitea eragin duen arrazoi nagusietako bat da. Horrez gain, ukrainar biztanle-





"Argi utzi beharra dago, NATOk ez duela Ukrainako kolpe estatua babesten. NATOk burutu zuen"

riaren ia erdia etnia errusiarrekoa da. Egoera horretan, Ukrainak NATO-rekin bat egitea pentsaezina suertatzen da Errusiarentzat, bere biztanleriaren zati bat etsaiaren eskuetan uztea suposatuko bailuke, Errusiari beti eraso egin nahi izan dion etsaiaren eskuetan, alegia. Argi utzi beharra dago, NATOk ez duela Ukrainako kolpe estatua babesten. NATOk burutu zuen, Europar Batasuna eta estatubatuarrek bere alde politikoko egitura ekonomikoen babespean, estatu kolpea. Eurak dira Euromaidanen zirku guzti hau finantzatu zutenak. Hortaz, ez gara babesaz ari, eurek aurrera eramandako guztitik eratorritako egoeraz baizik.

Gatazkan parte hartzen ari diren eragile ezberdinen erradiografia egin zenezake? Zer interes ditzute?

Gatazkaren baitan zenbait bloke bereiz ditzakegu. Alde batetik, Ukraina dugu, Estatu Batuak eta bere aliatuen interesei erantzuten dien blokea. Bestetik, errusiar blokea dugu, batez ere, errusiarren subiranotasun nazionalari erantzuten diona, egoera estrategiko eta mundu eslabiarren egoerari so eginda. Izan ere, errusiarrentzat eslabiar munduaren zati bat estatubatuarren menpe egoteak bere etorkizunean eragina izan dezakeela deritzo. Ukrainar blokearen baitan

hasieran bi alde bereiz gaitzake, bata, Europatik ekonomikoki gertuago zegoen zatia eta, bestea, Errusiatik gertuagoa zegoena. Azken hau zen Yanucovichen sasoian nagusitasu-na zuen zatia, errusiar influentziaren laguntzaz.

Esan bezala, gatazkaren aurretik europarrekin zenbait akordio ekonomikoz gain, honen parte izateko hainbat akordio ere sinatu ziren, baina Yanucovich azkenean atzera bota eta orduantxe hasi zen Euromaidana eta estatu kolpea. Interesak orokorrean ekonomikoak dira, batez ere, energetikoak. Izan ere, konturatuz gero, Ukraina Europako zubi energetikoetako bat da. Hori dela eta, Estatu Batuei ez zaie inondik inora interesatzen Ukrainak Errusiarekin inolako harremanik edukitzea. Bestalde, interes estrategiko militarrek ditugu, Ukraina Europar Batasunaren



• Errusiar armadaren konboia Donbassen



"hedabide informatiboak bai errusiar federazioaren, bai Donetsk eta Luganskeko herri errepubliken aurkako eraso masiboa burutzen ari dira."



edota NATOren parte izanez gero, mugak zein armamentu estrategikoa errusiarren hiriburutik gertuago kokatzeko aukera egongo bailitzateke. Ukrainako blokearen baitan gainera, Europar Batasunaren gertukoak diren oligarkak ditugu, egun agintean daudenak eta azken hauek dira, gainera, gerra honi hasiera eman zioten batailo nazionalistak finantzatzeko dituztenak.

Norainoko babes internazionala eduki da? Zeinen partetik? Babes maila hori handitu edo txikitu egin da?

Babes internazionalari dagokionez, honen parterik handiena Europako antolakunde politiko

nahiz mugimendu sozialen eskutik eta zenbait sindikaturen eskutik etorri da baina, inolaz ere, estatuen partetik. Aipatzekoa da, gainera, babes hau izaera komunistako sektoreetatik eta ezkerreko zenbait talderen babesarekin eman dela. Munduko gainerako puntuei dagokienez, ezin daiteke esan babes garrantzitsurik egon denik, baina aipatzekoak dira, Abjasia eta Osetiak emandako babesak, maila internazionalen estatu hauek onartuak ez badira ere. Horrez gain, onartu beharra dago eskuineko zenbait mugimenduk ere babesak eman dutela, baina hauek ez dute influentzia handirik lortu. Hala ere, gatazka izozten joan

zen heinean, laguntza ere gutxituz joan zen. Izan ere, jada ez geunden hedabideen erdigunean. Esan beharra dago hori nire analisi eta iritzia pertsonala dela. Ondo dakizuenek, zerbaiten inguruan informatzen ez denean, hau ez da existitzen eta apurkako desagerpen informatiboa egon izan da bertan gertatzen denaz, jendea beste gai batzuetan zentratzen joan delarik. Horrek, naturala denez, arreta gutxitzea eragin zuen eta baita honekin jasotzen zen laguntza ere. Gaur egun, arreta hori berraktibatu egin da baina ez lehengo moduan. Nire ustez, nik uste dudana dela argitu nahi dut, hedabide informatiboak bai errusiar federazioaren, bai Donetsk eta

Luganskeko herri errepubliken aurkako eraso masiboa burutzen ari dira. Eta horrek azkenean munduak egoerarekiko duen ikuspuntua eta, hortaz, Donbassekiko babesa baldintzatu dute. Gainera, honek ezkerreko hainbat sektorek NATOren diskurtso inperialista babestu eta justifikatzera eramateko puntura iristea eragin du.

Zein da Poroshenkoren alde borrokatzen ari diren Pravy Sector Svoboda bezalako taldeen ideologia?

Pravy Sector eta azken finean nazionalista ukrai-narrak Stepan Banderaren seme-alabak direla esan genezake, Bigarren Mundu Gerraren aurreko eta osteko nazionalismoa dutelarik oinarri. Nazionalismoaren ohiko elementuak partekatzen dituzte: nazioaren gorazarrea, arrazaren

gorazarrea, kulturarena, txobinismoa... Oro har, nazionalismo guztiak horrelakoak dira. Mugimendu hau azken aldiaren bere diskurtso politikoa neurtuz joan da, nahiz eta euren ekintzek gerra kriminalenak izaten jarraitzen duten. Baina baretu egin dira, batez ere, Europa eta teoriarik demokraziaren abangoardiaren parte diren herrialdeak ez asaldatzeko. Neurtutako diskurtso politikoaren puntu honetan, bai Europar Batasuna, bai Estatu Batuak, instruktore militar gehiagorekin babesten ari da hauek eta horrela dago kontua. Hala ere, mugimendu hauek izaera nazionalistara mugatutako influentzia edukitzeaz gain, izaera faxistakoa ere badaukate, askotan sinbologia nazia ere baliatzen dutelarik. Beraz, ez gara mugimendu nazionalista homogeenoa batez ari, nahiz eta horrela iza-

ten edo, gutxienez, homogeenotasun eta batasun hori transmititzen saiatzen diren.

Zelakoa da Donbass eskualdeko herri langilearen egunerokotasuna?

Donbasseko herria, Donetsk eta Luganskeko herri errepublikak aldarrikatu zirenetik, blokeo ekonomikoa jasaten ari da. Blokeo hau, azken urteetan nolabaiteko egonkortze ekonomikoa egon bada ere, sakonduz joan da krisi ekonomikoa dela medio. Errusiar federazioa gatazkan murgildu zenetik, inflazioak txarrera jo du. Azken finean, hau da gerrek eragin ohi duten ondorioetako bat. Askok pentsatzen dugu errusiar federazioa eskala handian gatazkan murgildu izanak Donbasseko eskualdean gerraren amaiera ekarriko duela baina, ta-



• Ukraniar ultranazionalistak Stepan Banderaren irudiarekin



malez, gauzak pattal doaz eta espero dezagun ukrainar herriak ahalik eta gutxien sufritzea gatazka honetan.

Gaur egun zelan dago egoera?

Fronteari dagokionez, egoera aldatu egin da otsailaren 24tik. Izan ere, data horretan, errusiar gobernuak eta herri errepubliken gobernuak, errusiar armadari Donbassen jarduteko eskubidea ematen zien defentsaren inguruko akordioa sinatu zuten. Hau errusiarren egoera geostrategikoaren jarraipen gisa uler dezakegu, hauek denbora baitzeramaten abisua ematen ez zutela onartuko NATOren egitura militarrek ekialdera hedatzerik, jada gertatzen ari zena. Hori dela eta, une honetan errusiar armada gudu-zelaian parte-hartze aktiboa izaten ari da eta errusiar aire armadaren babesak daukagu une honetan. Hori esker, Luganskeko herri errepublikari gutxi falta zaio guztiz aske izateko. gure errepublikari oraindik ere apur bat kostatzen ari zaiolarik,

ukrainar armadak frontearen mugan zeukan indar kontzentrazio handiarengatik.

Errusiar armada lau norabidetan burutzen ari da bere interbentzioa. Bata, Kieven norabidean, bigarrena Krimeatik, hirugarrena Voroneseko norabidean Jarkoverantz eta, bukatzeko, Lugansk eta Donetskeko frontea. Zentzu horretan, aurrera-pausoak eta errusiarren aurrerapenak egoten ari direla badirudi, eta daukagun informazioaren arabera, aurrerapen hauek garrantzitsuak izaten ari dira aurretik aipatutako norabide guztietan. Egoera honetan, garrantzitsuena fronteak egonkortzea da eta, aurrerapausoei dagokienez, erritmoa berreskuratzea, errusiar soldaduek zein gureek aurrera egin dezaten, betiere, biztanleria zibila aintzakotzat hartuta, honi ahalik eta kalte gutxien eginez.

Hori dela eta, arreta berezia eduki behar da gune urbanoei dagokienez. Zentzu honetan, etsaiak ez digu aukera askorik ematen. Izan ere, askotan zibilak zein eraikin zibilak baliatzen

ditu: erietxeak, eskolak zein bizitokiak, apartamentuak. Era berean, etsaia hau era propagandistikoan baliatzen ari da. Gure soldaduak gune horietan barneratzen direnean eta aurretik aipatutako guneetatik tiroak jasozen dituztenean, oso zaila da gauzak beste era batera egitea. Errusiar zein herri errepubliken armadentzako berebiziko garrantzia daukanez biztanleria zibilar ahalik eta kalte gutxien eragitea, inteligentzia militarren bitartez, zentzu honetan ahalik eta kalterik urrienak eragiten saiatzen ari gara.

Mobilizazio bat egon da gure erreserban eta erreserbista guztiak mobilizatu dituzte. Zentzu horretan, espero dugu gatazka azkar bukatzea eta hau da azken finean ezinegon edo asaldura handiena sorrarazten diguna. Izan ere, gerrak luzatzen direnean, hildako gehiago eragiteaz gain, ondorioak larriagoak izaten dira. Horregatik, esan dizudan moduan, dena azkar amaitzea espero dugu.

AUTODETERMINAZIOA



Nazio bat ezin da bere borondatearen aurka estatu baten subiranotasunaren menpe egon. Hori dela eta, autodeterminazioa nazio bat beste nazio baten estruktura estataletik banatu eta estatu independente nazional baten sorrerara bideratutako prozesu politikoa da. Honako ezaugarri hauek ditu oinarri:

- **Autoadierazpen** eskubidea.
- **Autodefinizio** eskubidea.
- **Automugatze** eskubidea.
- Barne eta kanpo auto **hedapen** eskubidea

(jarrera irredentista edota inperialistetan erori gabe).

Autodeterminazioa prozesu politiko bati lotuta dago, nazio batek estatu propio bat sortzeko duen eskubidean oinarrituta. Aintzakotzat hartu behar da nazio guztiek dutela kanpoko inolako esku hartzerik gabe euren burua gobernatzeko ahalmena, nazio bakoitzak hautaturiko gobernu motaren ara-

bera antolatzeko duen eskubidearen baitan. Gauzak horrela, autodeterminazio edo banatze eskubidearen ukazioak nazio menderatzailearen pribilegioak zuzenki babestea dakar. Horregatik, autodeterminazioa izatezko bidetik ematen den prozesua da, nazio eta nazioarteko araudi juridikoetatik kanpo kokatu ohi dena.

Nazio auziari eta zapalketari erantzuten dion prozesua politikoa izanik, argi izan behar da autodeterminazioa klase gatazkaren baitako prozesua dela, klase bakoitzak bere interesen arabera baliatzen duen prozesua den heinean. Beraz, garrantzitsua da autodeterminazioa baliatuko duen subjektua zein den, baita honen gauzapean sortuko duen estatu forma ere. Izan ere, autodeterminazioa langile klasearen ikuspuntutik eta klase burgesaren ikuspuntutik zeharo ezberdina da.

Burgesiaren klase parametroetako autodeterminazioa estatu nazional kapitalista bat sortzera bideratuta doa, burgesia nazionalak nazio zapaltzaileko burgesiaren lekua hartu eta posizio hobea



biltzen duen merkatu nazionala eta gainegitura juridiko-politiko propioak ezartzeko bidean. Era horretan, burgesiak lehenengo lerroan eta baldintzarik gabe planteatzen ditu aldarrikapen nazionalak, botere politikoa eskuratzeko. Horretarako, autodeterminazioa klabe interklasistan planteatzen du, fronte nazionalak bezalako proposamenak mahai gainean jarrita, zapalkuntza nazionalarekin bukatzeko bidean bai baina ez harreman kapitalistekin bukatzeko bidean. Hortaz, burgesiaren ikuspuntutik autodeterminazioa lehia interburgesean kokatutako prozesu politikoa da, ez diena nazio zapalketari erantzunik eman behar. Izan ere, autodeterminazio prozesuen bitartez burgesiak botere politikoa eskuratzearaz gain, askotan nazio zapaltzaileko burgesiari izaera politikoko zein ekonomikoko hobariak lortzeko presio elementu gisa baliatzen du autodeterminazioa.

Beste zenbait kasutan, askapen nazionalaren prozesuak parametro burgesetan lerratu eta bere interespean garatzeko edota langile klaseen interesei erantzuten dieten prozesu iraultzaileak zapuzteko baliatzen duen planteamendua da autodeterminazioa. Bide horretan, burgesiak askotan autodeterminazio prozesua bera prozesu demokratiko burges eta bozka bezalako kontzeptuetara mugatzen du, interklasismoa baliatuta autodeterminazioa burutu behar duen subjektuaren inguruko nahasmendua sortzeko asmoarekin. Gehiengoaren borondatean oinarritutako parametro demokratiko burgesen aldarrikapena egiten du, gainegitura ideologikoak klase izaera duenez gero, masen artean nagusitasuna duen ideologia aldekoa baitzaio. Horretaz gain, nazio bakoitzeko burgesiak

bere abantailen bermea lehenetsiko du beti, beste nazioen desabantaila posibleak kontuan hartu barik.

Langile klaseak, berriz, autodeterminazio eskubidea aitortu eta bermatu behar dio nazio orori, beste nazio baten lepotik ezer ematera konprometitu gabe; betiere, hauek langileriaren klase interesen alde edo interes inperialisten aurka garatzen badira. Hau da, bloke inperialistak ahultzen dituzten heinean eta iraultza sozialistetarako baldintza materialak ez dauden kasuetan, autodeterminazio prozesu burgesak babestuko ditu langileriak. Hala ere, autodeterminazioa langile klasearen ikuspegitik emanez gero, nazio zapalduen kasuan prozesu iraultzailearen eskutik doa, herri langilearen subiranotasuna eta nazio borondatea izan behar dituelarik oinarri. Horrela, klaserik gabeko prozesu sozialista bati bide eman behar dion langile boterean oinarritutako estatu independente eta sozialista eratzea da langile klasearen parametroetako autodeterminazioaren emaitza.





LANA: BEHARREZKOA ALA INPOSATUA?

Lanak berebiziko eginkizunak betetzen ditu gizarte kapitalistan. Batetik, produkzio sistema kapitalistak ezin du gure lanik gabe funtzionatu. Bestetik, langile klasearen parte garenoi ezinbestekoa zaigu gure lan indarra norbaiti saltzea eta harentzat lan egitea. Horixe dirudi langileon halabeharrezko patuak.

Baina zein neurritan da lana gure "berezko" patua, gure biziraupenerako ezinbestekoa? Edo klase dominazioaren ondoriozko inposizioa? Gure lana balioan jarri behar dugu? Ala gure askatasuna urratzen duen elementutzat hartu?

ZER DA LANA?


Lana hainbat modutara uler daiteke, batzuetan, errealtate materiala eraldatzen duen giza ekintza moduan. Horren arabera, gizatasunari lotutako jarduera izango litzateke. Baina orduan zerk bereiziko litzuke lana eta giza jarduera? Zergatik jarduera edo ekintza batzuk hartzen ditugu «lan» moduan, eta beste batzuk ez?

Lanaren azterketa soziala eta politikoa egin nahi badugu, beharrezkoa da testuinguru sozial eta

historiko espezifiko batean kokatzea, kapitalismoarenean, alegia. Izan ere, bestelako sistema sozialetan, giza jarduera kategorizatze oso bestelako moduak daude. Antzinaroan, adibidez, ez zuen zentzurik esklabo baten eta artisau libre baten jarduerak berdin izendatzeak. Izan ere, jarduera horiek inplikazio sozial oso ezberdinak zituzten, eta ez zen posible horiek berdin izendatzea, egun «lanarekin» egiten dugu modura.

Egungo gizartean, «lan»tzat jotzen ditugu gizarte kapitalistaren eta haren ekoizpen harremanen erreprodukzioan parte hartzen duten jarduerak, funtzio sozial jakin batzuk betetzen dituztelako. Beraz, lantzat jotako jarduerak ekoizpen harreman sozial kapitalisten barruan burutzen dira, eta berauek erreproduzitzea da haien funtzioa.

Era berean, lan jarduera hainbat formatan burutu daiteke, eta guztiek ez dute balio bera gizartearentzat (erre)produktibo gisa aitortuak izateko orduan; soldatarik gabeko etxeko lanak edo kontraturik gabekoa, adibidez. Horregatik, hierarkia bat dago lan formen aitortpen sozialean (adibidez, enplegua > soldatapeko lana > ezkutupekoa > etxeko lana).



Ostera, gizarte kapitalistaren erreprodukzioan beharrezkoak ez diren jarduerak ez dira lan moduan kontsideratzen, aisiari lotuta daudenak, batik bat.

LANA, ABERASTASUNAREN SORTZAILE

Lanak funtsezko eginkizun bat du, beste guztiak baldintzatzen dituena: aberastasuna sortzea, alegia. Aberastasuna beharrianak eta desirak asetzera bideratutako ondasunen multzoa da, beharrian horiek sozialki determinatuta daudelarik. Hau da, gizartearen arabera, ondasun batzuk beharrezkoak eta desiragarriak izango dira, eta beste batzuk ez.

Gizarte kapitalistan, aberastasuna merkantzia formapean agertzen zaigu, merkatuaren bidez eskuratzeko baititugu gure beharrianak asetzeko onda-

sun eta zerbitzuen zati handi bat. Horregatik, merkantzien ekoizpenera dago bideratua lana gure gizartean, eta ezinezkoa da bata bestea gabe ulertzea.

Halaber, etxeko lanek ere merkantzien ekoizpenean hartzen dute parte, lan indarra merkantzia (erre)produzitzen dutelako. Etxeko langileek ez dutenez haien lan indarra zuzenean saltzen, ez dute soldatarik jasotzen, eta aitorpen sozial baxuagoa dute.

Burgesiak du lanaz ekoiztutako aberastasunaren jabetza, ekoizpen bitartekoen jabetza pribatuak hala ahalbidetzen diolako; alegia, lantoki batean ekoizten den guztia da lantokiko jabearena, eta langileak ez du bere lana saltzen, lan indarra baizik. Horretan oinarritzen da, hain zuzen, lanaren esplotazioa: kapitalistak lan indarra erosten die langileei, eta, horrela, haien lanarekin sortzen duten guztiaz jabetzen dira. Modu horretan, lanarekin sortutako aberastasun osoaren jabetza eskuratzeko du klase kapitalistak, kapital bihurtzen duena. Ondorioz, aberastasunaren sorrera eta kapital metaketa dira lanaren eginkizun garrantzitsuenak.

SOLDATA, LANGILE KLASAREN ERREPRODUKZIOAKO

Hala ere, aberastasunaren parte bat langile klasearen artean banatu behar da, haren bizirau-pena eta lan indarraren erreprodukzioa berma-





tzeko. Horregatik, lan indarra saltzean, soldata jasotzen dute langileek, haien beharrianak ase ahal izateko, eta beren lan indarra erreproduzitu. Bestela, langileek ez lukete haien lan indarra salduko, eta ez lukete inorentzat lan egingo.

Azpimarratzekoa da gizarte kapitalistaren erreprodukzioarako ezinbestekoa dela langile klaseak bizirautea. Osterantzean, ez litzateke ez langilerik, ez esplotatzeko lan indarrik egongo. Soldatak hori ahalbidetzen du, nahiz eta langile klaseko kide guztiak soldatapekoak ez izan. Izan ere, langile klasearen barruan, langile batzuek zuzenean jasoko dute soldata; baina beste batzuek ez. Adibidez: ordainsaririk gabeko etxeko langileak, umeak, ikasleak... Horiek ez dira zuzenean langileak, baina soldatapekoen baten menpe bizi dira eta, hortaz, langile klasearen parte dira.

Beraz, lanak klase burgesaren aberastasuna sortzen du. Horixe da haren funtzio garrantzitsua. Ondoren, sortutako aberastasunaren parte bat banatu behar da langile klasearen artean, langile esplotagarriak egongo direla ziurtatzeko.

LANA, NORTASUNAREN ARDATZETAKO BAT

Lanaren eginkizun sozialek gainegitura ideologikoan ere eragiten dute. Hasteko, norbanakoak gi-

zartean integratzeko bitarteko bihurtu du ideologia burgesak lana; hau da, langile indibidual moduan, lana bilatzen dugunean, ez dugu soilik soldata helburu: norbanako moduan, gure nortasuna eraikitzea ere bilatzen dugu, eta nortasun hori besteengandik aitortua izatea. Izan ere, indibidualizazio prozesuarekin, premiazko bihurtu da besteetan aurrean "norbait izatea", eta norbanako moduan ditugun bertuteak aitortuak izatea. Lanak ahalbidetzen digu gure nortasun indibidualaren aitortza sozial hori jasotzea, zerbaitetarako balio dugula erakutsiz. Beste modu batera esanda, gizartean gure tokia topatzea ahalbidetzen digu lanak.

Ildo horretatik, langabetuen arazo nagusia, diruaz aparte, egoera horren inguruan sortzen den estigma soziala da: ezertarako balio ez duten pertzepzioa, horren ondorio psikologiko guztiekin. Horrenbestez, kasu askotan edozein lan baldintza onartzeko prest egoten dira, estigma hori kentzeko helburuarekin. Hortaz, lanarekiko menpekotasuna areagotu egiten da.

LANAREN ETA DENBORA LIBREAREN ARTEKO HARREMAN KONTRAESANKORRA

Lanak denbora librea "kentzen" digu, baina lana da, kasu gehienetan, aisiaz gozatu ahal izateko

baldintza (oporretan joateko, adibidez). Horregatik lehenesten dugu beti lana, aisialdirako edo bestelako jardueretarako denbora kendu arren; lanik gabe aisiaz gozatzerik ez dugula sinetsarazi digulako sistema kapitalistak.


Dena dela, aisiai gero eta garrantzi handiagoa irabazi du gure gizartean, baina lanaren eta denbora librearen arteko lehia edo talka areagotu daiteke. Izan ere, kasu askotan, lanak ez digu ahalbidetzen aisiaz edo denbora libreaz nahiko gure modura gozatzea. Hortaz, aisia eta lanaren arteko kontraesana areagotu egiten da.

Gauzak horrela, European Values Survey inketetan gero eta jende gehiagok adierazten du lana oso-oso garrantzitsua dela bere bizitzan (normalean, bigarren arlo garrantzitsuena, familia eta gero), baina bestelako jardueretara dedikatzeko denbora kentzen diola. Ondorioz, gero eta inkestatu gehiagok erantzuten dute lanaren garrantzia murriztea nahiko luketela. Oro har, lanarekiko ezinegona areagotu da langileen artean, lana garrantzitsuegia delako haien beharrian materialak zein immaterialak asetzeko eta horrek beste jardueretara dedikatzeko tartea kentzen dielako.

Halaber, langabeziak eta lan baldintzen prekari-zazioak krisi sozial estrukturalaren zantzuak irekitu, lanak ez dituelako behar bezala betetzen egokitu izan zaizkion funtzio sozialak. Hau da, langileek espero dute lan eginez bizi baldintza jakin batzuk lortzea eta bere nortasuna garatu ahal izatea, baita oporretan joan ahal izatea. Baina hori gero eta zailagoa da. Ondorioz, langile klasearen ezinegona eta gizartearen krisi estrukturala sakondu egin da. Era berean, lanarekiko menpekotasuna areagotu egin da, langileek ez dutelako haien beharrianak asetzeko beste modurik topatzen.

EZINEGONEKIKO ERANTZUN INDIBIDUALA

Lanarekiko ezinegona egon badago. Baina zergatik ahuldu da, orduan, langile borroka? Bada, askotan pentsatzen dugu antolatzea eta borrokatzea direla erantzun automatikoak ezinegonen aurrean. Halaber, uste dugu borrokara jotzen ez duena egokitu zaion egoerarekin "konforme" bizi dela. Baina hori ez da guztiz horrela. Izan ere, pasibotasunaren arrazoia gutxitan izaten da adostasun edo desadostasun kontua.



Egoera kritikoen eta ezinegonen aurrean, hiru jokabide posible izaten ditugu: men egitea (eskirola, adibidez), ihes egitea (lanetik alde egitea, adibidez) edo borrokatzea. Azken aukera gero eta inprobableagoa izaten ari da. Izan ere, hainbat faktore direla medio (langile antolakundeen eragin-kortasuna eta sinesgarritasuna, adibidez), langileon artean badugu joera pentsatzeko gehiago dugula men eginez irabazteko, antolatuz eta borrokatuz baino. Ondorioz, krisiaren eta ezinegonaren aurrean, kapitalak bere nagusitasunari eusten dio.

Bestalde, garai batean, lanak langileen arteko klase nortasuna eta borroka elikatzen zituen. Egun, klase borrokak zailtasun handiak ditu lanaren inguruan artikulatzeko: batetik, langileen klasea gero eta heterogeneoagoa delako; bestetik, indibidualizazio prozesuaren ondorioz, norbanakoa delako guztiaren gainetik lehenetsi beharreko elementua. Izan ere, lanak ase beharreko beharrianak ez dira modu kolektiboan ulertzen, baizik eta indibidualizatuan (norbanakoaren aitortzaz ari garenean, adibidez). Ondorioz, langile norbanakoen arteko lehia gero eta ohikoagoa da ezinegonari erantzuteko orduan, klase elkartasunaren eta borrokaren ordeztu.

LANA DOMINAZIOAREN EMAITZA, BAINA BORROKARAKO ABIAPUNTUA ERE BAI

Oro har, langile klasearekiko dominazioa lan egi-tera behartuz gauzatzen da neurri handi batean. Azken finean, ekoizpen harreman kapitalistak lanaren inposizioan oinarritzen dira, lana bera esplotatu ahal izateko. Alegia, langileok, nola edo hala, behartuta ikusten dugu geure burua lan indarra soldataren truke saltzera, gure beharrianak asebate ahal izateko. Esplotatuak izateari uko egi-ten badiogu, gaur-gaurkoz, ezingo ditugu beharrianak ase (edo maila askoz txikiagoan). Gauzak horrela, lanaren esplotazioak dominazioa eta zapalkuntza inplikatzeko ditu. Ez dago modurik langile klase moduan lan esplotaziotik irteteko, hori inposatzen duen dominazioa era antolatuan borrokatuz ez bada.

Halaber, lanaren atzean dauden esplotazio eta zapalkuntza harremanek ageriko bihurtzen dute

borrokaren beharra: kasu gehienetan, esplotazioaren eraginak apaltzeko; beste batzuetan, esplotazioa bera suntsitzeko. Indarkeriak ez du zertan lan baldintza kaskarrak ditugunean soilik azaleratu behar. Alegia, baldintza onak izan arren, langile guztiok bizi dugu "denbora libre" gehiago eskura izateko nahia eta gure denbora lapurtzen ari zaizkigun sentsazioa. Horixe da, hain zuzen, langile klasearen bizipenetan eragiten digun kontraesan nagusietako bat: lehentasunezko garrantzia ematen diogu lanari, beharrianak asetzeko eskaintzen zaigun bidea delako, baina toki txikiagoa izatea nahiko genuke. Alternatibarik gorpuztu ezean, lan esplotatuarekiko menpekotasunak bere horretan jarraituko du, eta kapitalak klase dominazioari eutsiko dio.



"langile norbanakoen arteko lehia gero eta ohikoagoa da ezinegonari erantzuteko orduan, klase elkartasunaren eta borrokaren ordeztu."

Laburbilduz, lanak ahalbidetzen du gizarte kapitalistaren erreprodukzioa, kapital metaketa ahalbidetu eta langile klasearen beharrianak asetzea ahalbidetzen duelako. Hala ere, garrantzi hori ez diogu modu askean ematen, modu behartuan baizik, beste alternatibarik ez dugulako. Izan ere, langile guztiok nahiko genioke ahalik eta denbora tarte murriztena eskaini lanari. Formulazio sinple samarra dirudi. Baina hori da, azken finean, langile klase moduan batzen gaituen desira. Hainbat faktore eta arrazoiengatik desira hori gaur egun ez dago behar bezala antolatuta, eta, beraz, klase borrokak ez du merezi duen intentsitate eta oihartzuna.

Hori esanda, lan esparrua ekoizpen modua bere osotasunean gainditzeko landu beharreko esparruetako bat besterik ez da, langileon ezinegonaz eta borrokaren beharraz ohartzeko esparrua delako. Ondorioz, langile antolakundeen eginbeharra da langileen esplotazioari antolakuntzan eta borrokan oinarritutako irtenbide kolektiboa jorratzea.

"Euskal Herriko azken hamarkadetako historiak jada adierazi zizkigun zenbait gako; baina oso ezberdinak izan dira Katalunian jorratutako bidea eta baliatutako borroka moldeak."



KATALUNIAKO PROZESU INDEPENDENTISTAREN BILAKAERA: GERTAKARI NAGUSIAK

Bost urte pasatu dira Katalunian erreferenduma burutu eta Kataluniako Errepublikak aldarrikatu zutenetik. Horren ondorioz, Kataluniako hamabi agintari politikori sedizio delitua ezarri zieten Espainiako estatuaren legearen aurka altxatzeagatik, eta 9 eta 13 urteko espetxe zigorretara kondenatu. Orain, berriro piztu da eztabaida, Espainiako Kongresuak delitu hori Kode Penaketik kentzeko lege proposamena onartu duelako, eta "desordena publiko larriko" delitutzat hartu. Lege aldaketak espetxe zigorra nabarmen jaistea ekarri duen arren (5 urte gehienez), lege horren aplikazio orokorturako behar besteko anbigutasuna eman dio, aldi berean.

Hori horrela, Kataluniaren independentziarako saiakerak prozesuan gertatutakoa birpasatu nahi dugu. Izan ere, Espainiako estatuaren izaera zapaltzailea modu nabarmenean azaleratu zen, nahiz eta independentzia bultzatzen zuten eragileek soilik indarkeriarik gabeko borroka moldeak erabili. Nahiz eta helburuak lortu ez, Euskal Herrian ezinbestekoa zaigu han gertatutakoa ezagutzea eta aztertzea, nazio askapena helburu duen prozesu politikoa abian jarri nahi badugu.

KATALUNIAKO AUTONOMIA ESTATUTUAREN ERREFORMA

Kataluniako prozesu independentistaren hastapeak 2000. urteko lehen hamarkadan koka ditzakegu. Izan ere, hamarkada hartan Autonomia Estatu berri bat lortzeko lehen urratsak eman ziren. Hala, 2005ean, Parlamentuko alderdi guztiek estatutu berrirako proposamena onartu zuten, Partido Popular-ek (PP) izan ezik. Proposamen hark bazuen ezaugarri bat espainiar nazionalismoak onartu ezin zuena: Kataluniari nazio izaera aitortzen zion. Horrez gain, Hego Euskal Herrian dugun kontzertu ekonomiko antzeko bat ezartzea planteatzen zuten. Era berean, nabarmentzekoa da Partit dels Socialistes de Catalunya (PSC) proposamena ontzat jo izana, nahiz eta Partido Socialista Obrero Español-i (PSOE) lotuta egon. Proposamenak ez zuen Espainiako Kongresuaren babesik, eta testu berri bat adostu zuten Convergència i Unió (CiU) eta PSOEren artean. Espainiako Kongresuan onartu zen hori EAJren baietzarekin, besteak beste, eta PPren ezetzarekin. Halaber, Esquerra Republicana de Catalunya (ERC) ezetza eman zion, hura ez zelako Kataluniako Parla-



mentuaren gehiengoz onartutako testua. Izan ere, bertsio berriak edukien jatorrizkoaren edukien erdia aldatu zuen. 2006an, Estatutu berria onartzeko erreferendumean, botoen % 73,9rekin onetsi zuten, baina katalanen % 48,9ren parte hartzearekin; hau da, katalanen % 36k soilik eman zion baiezkua.

Kataluniako Estatutu berriak ez zituen katalanen gehiengo baten aspirazioak asebate, Estatutik inposatua izan baitzen neurri handi batean. Harrezkero, mugimendu independentistak bere estrategia aldatu egin zuen, autonomismoa alboratuz eta Espainiako estatuarekiko jarrera apurtzaileagoa bereganatuz. Hala, mobilizazio ziklo berri bat martxan jartzen hasi ziren, erabakitze eskubidearen alde hasieran. Zenbait mobilizazio jendetsu burutu zituzten, eta, 2009- 2011 urteen artean, Kataluniaren independentziaren inguruko kontsulta ez lotesleak antolatu zituzten hainbat herritan, baita Bartzelonan ere.

ESPAINIAKO AUZITEGI KONSTITUZIONALAREN EZEZKOA

Mobilizazio testuinguru hartan, 2010eko ekainean, Espainiako Auzitegi Konstituzionalak inkonstituzionaltzat jo zituen erreferendum bidez onartutako Autonomia Estatutuaren zenbait atal; besteak

beste, Kataluniari nazio izaera aitortzeagatik, katalanaren lehentasunagatik zein derrigortasunagatik, eta Kataluniako jurisdikzio organoei emandako gehiegizko eskumenengatik.



“Euskal Herrian ezinbestekoa zaigu han gertatutakoa ezagutzea eta aztertzea, nazio askapena helburu duen prozesu politikoa abian jarri nahi badugu.”

Horri erantzuteko, manifestazioa deitu zuen Òmnium Cultural eragileak, «som una nació nosaltres decidim» lelopean, sindikatu eta Kataluniako Parlamentuko alderdi guztien babesarekin, PP eta Ciudadans-ena (Cs) kenduta. Katalunian ordura arte izandako manifestazio jendetsuena izan zen, 1,1-1,5 milioi lagun inguruk hartu baitzuten parte.

PSCK ere hartu zuen parte mobilizazioetan, baina ez zegoen eroso Estatuarekin hauspotzen ari zen gatazka horretan. Kataluniaren nazio izaera aitortu bai, baina Espainia federal baten barruan kokatzearen aldekoa zen; hala ere, Espainiako estatuak ez zuen horretarako aukerarik ematen eta harekiko konfrontazio jarrera hauspotzen ari zen Kataluniako gizartean. Ildo horretatik, mobilizazioaren mezua leuntzen ahalegindu zen. Esaterako, pankarta ordeztu, senyera eramatea nahi zuten. Ahalegin hori oso txarto ikusi zuten. Horren harira, manifestazioan iskanbila sortu zen Jose Montilla (PSC) Generalitateko Presidentearekin, eta alde egin behar izan zuen.

ARTUR MASEN GARAIPENA HAUTESKUNDEETAN

CiUk, Artur Mas buru zuela, abagune hori aprobetxatu zuen katalanismoa berpiztu, eta 2010eko azaroko hauteskunde autonomikoetan bere posizioa hobetzeko. Horretarako, bi proposamen jarri zituen hauteskunde programaren erdigunean: erabakitze eskubidea eta finantzazio autonomikorako zerga ituna (Hego Euskal Herrian ditugun antzekoa zen, zergen kudeaketa kontrol handiagoa ahalbidetzen duena). Kontuan hartu behar dugu ekonomia krisiak jota zegoela urte haietan, eta aldarrikapen ekonomikoek garrantzia irabazi zuten

lehia politikoan. Azkenean, CiUk irabazi zituen hauteskundeak, eserlekuen % 38 eskuratuta. Artur Mas izendatu zuten presidente, PSCren abstentzioarekin eta gainontzeko alderdien ezezkoarekin.

ARTUR MASEN ZERGA ITUNA

Kataluniako Parlamentuak zerga itunerako proposamena onartu zuen 2012an, baina Mariano Rajoy (PP) Espainiako Gobernuako orduko presidentek uko egin zion ezer negoziatzeari. Erantzun horrek beste inflexio puntu bat ekarri zuen CiUrentzat, itun hori baitzen Estatuari eskatzen zion gutxienekoa. Zerga ituna ukatuta, Masentzat ez zuen zentzurik legegintzaldiarekin jarraitzeak. Horregatik, hauteskundeetara deitu zuen azaroaren 25ra, legegintzaldia bukatu baino 2 urte lehenago. Halaber, urte hartako Diada (irailaren 11n ospatzen den Kataluniako egun nazionala) Asmblea Na-zional Catalana (ANC) antolakundeak deitu zuen, «Catalunya, nou estat d'Europa» lelopean. Mobili-zazio guztiz arrakastatsua izan zen: 1,5 milioi la-gunek hartu zuten parte Guàrdia Urbanaren arabe-ra eta 2 milioik antolatzaileen arabera. Artur Mas-ek eta

CiUk babesa eman zioten mobilizazioari, independentziaren aldeko jarrera argiagoa hartuz.

Irailaren 27an, Kataluniako Parlamentuak ebazpen bat atera zuen, autodeterminazio erreferenduma eskatuz hurrengo legegintzaldirako. Orduan, Artur Masek adierazi zuen heldu zela herri katalanak autodeterminazio eskubidea gauzatzeko unea. Ildo horretatik, kontsulta ez loteslea egin behar zutela adostu zuten.

2012KO HAUTESKUNDEAK ETA GOBERNAGARRITASUN ITUNA

2012ko azaroaren 25ean egindako hauteskundeetan, CiUk irabazi arren, aurrekoan baino 12 eserleku gutxiago lortu zituen, eta 11 gehiago ERCK. Hala, CiUk gehiengoa mantendu zuen, eta ERC bigarren indar bilakatu zen. Horrez gain, Candidatura d'Unitat Popular (CUP), Esquerra Independentistari lotutako hautagaitza, Parlamentuan sartu zen lehen aldiz, 3 eserlekurekin.

Gauzak horrela, Artur Masen presidentetza negoziatzeari ekin zioten CiUko eta ERCKo buruek, eta gobernagarritasun akordioa itxi zuten abenduaren



19an. Akordio horren puntuetako bat 2014an herri kontsulta bat deitzea zen, Katalunia estatu bihurtzeko aukeraren inguruan.



"Ekainean, Erabakitze Eskubidearen aldeko Itun Nazionala sinatu zuten Kataluniako 40 gizarte-eragilek (alderdi politikoak eta bestelakoak)."

KATALUNIAKO HERRIAREN SUBIRANOTASUN ALDARRIKAPENA

Artur Mas presidente izendatuta, 2013ko urtarrilaren 23an, «Kataluniako herriaren Subiranotasun eta Erabakitze eskubidea» aitortzen zuen adierazpena onartu zuten Kataluniako Parlamentuan, CiUko, ERCko eta CV-EuiAko diputatuen aldeko botoekin. CUPEkoek «baiezko kritikoa» eman zuten, haietako diputatu bakarrak eman baitzion baiezkoa aldarrikapenari, eta beste biak abstenitu.

2014ko martxoan, Espainiako Auzitegi Konstituzionalak inkonstituzionaltzat eta nulutzat jo zuen adierazpen hura, Espainiaren subiranotasuna zatietzina argudiatuta. Hala ere, Kataluniako Parlamentuko Mahaiarentzat, adierazpen hark «indarrean» jarraitzen zuen, «ezin baita borondate politikorik indargabetu».

Ekainean, Erabakitze Eskubidearen aldeko Itun Nazionala sinatu zuten Kataluniako 40 gizarte-eragilek (alderdi politikoak eta bestelakoak). Horren bidez, sinatzaileak konprometitzen ziren erabakitze eskubidea babestera eta Kataluniako etorkizunari buruzko kontsulta bultzatzera.

Urte hartako Diadan, irailaren 11n, «Independentziarako Bide Katalana» ekimena deitu zuen Asamblea Nacional Catalana eragi-leak. Ekimen horretan, Katalunia zeharkatzen zuen 400 km-ko giza katea osatu zuten, 1.600.000 la-gunek parte hartuta.

2014KO AZAROAREN 9KO KONTSULTA

Hilabete batzuk geroago, 2013ko abenduan, Artur Mas Presidenteak Kataluniaren etorkizunari buruzko herri kontsultaren data eta galdera zehatzak argitara eman zituen. Kontsulta 2014ko azaroaren

9an egingo zuten, eta honako bi galdera hauek egingo zizkien herritarrei: «Nahi duzu Katalunia Estatu bat izatea?» eta «Erantzuna baiezkoa izatekotan, Estatu independentea izatea nahi duzu?».

Argitu beharra dago deialdi horren helburua kontsulta egitea baino ez zela, eta ez erreferenduma. Izan ere, kontsulta eta erreferenduma ez dira gauza bera, nahiz eta bietan galdera baten inguruan bozkatzeari eskatu. Kontsultaren emaitzak ez dira lotesleak legearen aldetik, eta herritarren iritzia jakiteko egiten dira soilik; hau da, gehien-goak estatu bat osatzeari baietza emateak ez du zertan eraginik izan behar kontsulta batean. Erreferendumaren emaitza, aldiz, loteslea da; hots, bete egin behar da. 2014ko kontsultak katalanen iritzia jakiteko balio zuen, baina ez zuen zertan Kataluniako Estatuaren eraketa ekarri behar.

Urtarrilean, Parlamentuak eskaera bat onartu zuen, kontsulta egiteko eskumena transferitzea eskatuz Espainiako Kongresuari. Espainiako Kongresuko diputatuen % 86k ezetza eman zion, baina herri katalanaren borondate politikoa geldiezina zen.

Ezetza jasota, kontsulta-lege berria osatzen hasi ziren CiU eta ERC alderdiak, kontsultari marko legal bat emateko asmoz. Ekimen hark eztabaida piztu zuen juristen artean: batzuentzat, Kataluniako Autonomia Estatutuko 122. artikuluekin bat zetorren; besteentzat, Konstituzioren kontra zihoan. Azkenean, lege hura onartua izan zen Kataluniako Parlamentuan. Horrekin batera, Masek kontsultarako deialdiaren dekretua sinatu zuen.

Horren aurrean, Espainiako Gobernuak inkonstituzionaltasun helegitea jarrita, Auzitegi Konstituzionalak eten egin zuen behin-behinean kontsulta, kautelazko neurri moduan, legea aztertzen zuten bitartean. Hori ikusita, kontsulta ordeztu, «prozesu parte hartzaile herritarra» egingo zutela adierazi zuen Masek, eta hori ere eten egin zuen Auzitegi Konstituzionalak. Hala ere, Kataluniako Gobernuak eutsi egin zion deialdiari. Botazio, katalanen % 37,02k hartu zuten parte, eta parte hartzaileen % 80,76k baiezkoa eman zien planteatutako bi galderei. Gerora, 2018an, Auzitegi Gorenak Artur Mas eta bere kide batzuk prebrikazioa eta desobedientziagatik urtebetez inhabilitatu zituen, eta 4,9 milioiko isuna ordaintzera behartu, botazio hura deitu izanagatik.



2015EKO HAUTESKUNDE PLEBISZITARIOAK ETA INDEPENDENTZIA PROZESUAREN HASIERA

2015eko urtarrilean, Artur Masek Kataluniako hauteskundeak irailaren 27ra aurreratu zituen. Haren esanetan, hauteskunde horiek Kataluniaren independentziaren inguruko izaera plebiszitarioa izango zuten; hau da, hauteskundeak alderdi independentistek irabaztekotan, Kataluniaren independentzia aldarrikatuko zuten.

Gauzak horrela, Convergència Democràtica de Catalunya (CDC) eta ERC alderdiek eta ANC eta Òmnium Cultural eragileek Kataluniako burujabetza prozesurako bideorria adostu zuten, martxoaren 30ean. Horren arabera, hauteskundeak irabaztekotan, Kataluniaren independentzia aldarrikatuko zuten 18 hilabeteren buruan. Gerora, hautagaitza bateratua aurkeztea adostu zuten, Junts pel Sí (JxSí) izenpean. CUP ez zen koaliziora batu; babesa eman zion, ordea, hauteskunde deialdiaren izaera plebiszitarioari.

CiU koalizioaren parte zen UDC alderdia ez zeto-rren bat bere kide CDCK bultzatutako bideorri-arekin. Izan ere, lege kanpoko ekimenak aurrera eramatea inplikatzeko zuten. Horregatik, koalizioa banatu eta desegin zen.

2015eko hauteskundeek eserlekuen alderdi independentistei (JxSí eta CUP) eman zien gehiengoa (72 135 eserleku), baina ez botoen gehiengoa, % 47,8 jaso baitzuten. Eraitza horiek ez zuten balio independentzia berehala aldarrikatzeko; bai, ostera, independentziaranzko prozesua abian jartzeko. Ondorioz, 2015eko azaroaren 9an, Kataluniako Parlamentuak errepublika formapeko estatu katalanaren eraketa prozesuari eman zion hasiera.

CARLES PUIGDEMONT-EN PRESIDENTETZA ETA 2017KO ERREFERENDUMAREN IRAGARTZEA

Hauteskundeak irabazita ere, desadostasun sako-
nak egon ziren JxSiren eta CUPren artean, Genera-

litateko Presidenteak aukeratzeko orduan. Izan ere, azken egunera arte iraun zuten haien arteko negoziazioek. Azkenean, Artur Mas baztertuta, Carles Puigdemont (CDC) izendatu zuten presidente.

2016ko urtarrilean, Kataluniako Parlamentuak Prozesu Eratzailearen Azterketarako Komisioa sortu zuen, honako ondorioak aterako zituen: herri katalanaren erabakitze eskubidea eta prozesu eratzailea abiatzeko legitimitatea. Irailean, Carles Puigdemont presidenteak iragarri zuen hurrengo urteko irailean independentzia erreferenduma loteslea deituko zutela, eta Espainiako gobernuari adostasun batera heltzeko aukera luzatu zion. Era berean, abenduan, 4.000 entitatek eta 400.000 pertsonak Erreferendumerako Itun Nazionala sinatu zuten.

2017: ERREFERENDUMAREN URTEA

2017ko ekainaren 9an, erreferenduma era ofizialean deitu zuten. Urriaren 1ean egingo zen, eta galdera honakoa izango zen: «Nahi duzu Katalunia errepublika formako estatu independentea izatea?». Hortik aurrera, gertakariak bata bestearen atzetik etorri ziren.

Irailaren 6an, Kataluniaren Independentziari buruzko Erreferenduma Loteslearen Legea onartu zuen parlamentuak. Ondoren, Kataluniako Gobernuak kide guztiek Kataluniaren autodeterminazio erreferenduma eta Kataluniaren autodeterminazio erreferenduma burutzeko arau gehigarrien dekretua sinatu zuten, eta hilaren 8an Iragankortasun Juridiko eta Fundatzailearen Legea onartu zuten parlamentuan.



“parte hartzea % 43,03koa izan zen, eta % 90,18k baiezkoa eman zion Kataluniako estatu independentea eratzeari”

Hurrengo egunetan, erreferenduari lotutako ekitaldiak debekatuak eta jazarriak izan ziren Espainiako Polizia Nazionalaren eskutik. Gainera, zenbait egoitza miatu zituzten, eta zenbait alkate deklaratzera zitatu. Bestalde, propagandarako kartelak, esku-orriak eta abar antzeman, eta errefe-

rendum egunaren informazioa zabaltzeko webgunea itxi egin zuten. Testuinguru hartan, Ezker Independentistako antolakundeek Erreferenduma-ren Defentsarako Komiteek (Comitès de Defensa del Referendum, CDR) eratzeari ekin zioten, gerora Errepublikaren Defentsarako Komite bihurtu zirenak.

Irailaren 20an, Generalitateko hainbat egoitza miatu eta 14 lagun atxilotu zituzten, tartean Generalitateko goi-kargudunak. Egun horretan, 9.894.350 boto paper antzeman zituen Guardia Zibilak. Atxilotetek protestaldi ugari eragin zituzten Katalunian zehar, baina bereziki jendetsuak izan ziren Generalitatearen Ekonomia eta Kanpo Harremanetarako Kontseilaritzen egoitzen aurrean egin zirenak. CUPen egoitza ere miatzen ahalegindu ziren, baina bertaratutako jarraitzaileek galarazi egin zuten.

URRIAREN 1A: ERREFERENDUM EGUNA

Mobilizazioz eta tentsioz betetako aste horien ostean, urriaren 1a heldu zen. Espainiako Polizia eta Guardia Zibila hauteslekuak ixtera joango zirela aurreikusten zuten, Generalitateak boto unitibertsala ezarri zuen hautesleku guztietan. Izan ere, egunean zehar 319 hautesleku itxi zituzten indarrez, eta botoa ematera joandako 893 hautesle zauritu. Arratsaldean, Mariano Rajoy Espainiako Estatuako Presidenteak adierazi zuen Katalunian ez zela erreferendumik egin, poliziek euren betebeharrak demokratikoki bete zutela argudiatuz.

Hurrengo egunean, argitara eman zituzten erreferendumaren emaitzak: parte hartzea % 43,03koa izan zen, eta % 90,18k baiezkoa eman zion Kataluniako estatu independentea eratzeari.

ERREFERENDUMAREN HURRENGO EGUNAK

Urriaren 10ean, Carles Puigdemont Generalitateko presidenteak erreferendumaren emaitzak helarazi zituen Parlamentura. Autodeterminazio Erreferendumaren Legearen arabera, baietak irabazi izanak Independentzia Aldarrikapena eta zekarren. Halaxe egin zuen Presidenteak, baina ondoren, aldi baterako indargabetu egin zuen aldarrikapena, Espainiako Gobernuarekin negoziazioa eta elkarriketa ahalbidetzeko asmoz.

Hilaren 16an, Espainiako Estatuak Jordi Sànchez (ANC) eta Jordi Cuixart (Òmnium Cultural) eragileetako buruak atxilotzea agindu zuen, irailaren 20ko gertakariengatik sedizioa leporatuta.

Urriaren 27an Kataluniako Parlamentuak Independentzia Aldarrikapena onartu eta Kataluniako Errepublika aldarrikatu zuen. Minutu batzuk geroago, Espainiako Gobernuak Konstituzioaren 155. artikulua indarrean jarri zuen, autonomia erkidegoan esku hartzea eta haren kontrola hartzea ahalbidetzen diona. Ondorioz, Kataluniako Generalitat osoa Espainiako Gobernuaren kontrolpean egotera pasatu zen. Horrez gain, Kataluniako Parlamentua desegin eta hauteskundeak deitu zituen urte bereko abenduaren 21erako.

Hurrengo egunean, Carles Puigdemontek eta zazpi gobernukidek ihes egin zuten Bruselara. Ostean, azaroaren 2an, Oriol Junqueras presidenteordea eta gainontzeko kontseilariak Entzutegi Nazionalen deklaratzera deituta zeuden, matxinada, desobedientzia, sedizioa eta funts publikoak bidegabe erabiltzea leporatuta. Horietatik zortzi espetxeratu zituzten. Horren aurrean, greba orokorra deitu zuten zenbait sindikatuk azaroaren 8rako. Egun hartan, CDRek zenbait ekintza burutu zituz-

ten Katalunian zehar, hala nola, errepide, trenbide eta muga mozketak. Hilaren 11n, berriz, 750.000 pertsona manifestatu ziren Bartzelonan preso politikoen askatasuna eskatzeko.

Abenduaren 4an, espetxeratutako kontseilari gehienak askatzea agindu zuen Auzitegi Goreneko epaileak, Oriol Junqueras eta Joaquim Forn barne kontseilaria izan ezik. Halaber, espetxe prebentiboan jarraitu behar zuten Jordi Sànchezek (ANC) eta Jordi Cuixartek (Òmnium Cultural).

2017KO ABENDUAREN 21EKO HAUTESKUNDEAK

155. artikulua ekarri zituen abenduko hauteskundeak, eta, beraz, oso hauteskunde kanpaina liskartsua izan zen. Besteak beste, Hauteskunde Bartzordeak preso politikoei babesa emateko kartelak kentzea agindu zuen, eta kolore horidun elementuak debekatzea.

Testuinguru hartan, hautagai independentistak ez ziren ados jarri zerrenda bateratua osatzeko orduan. Alde batetik, Partit Demòcrata Europeu Català (PDeCAT, lehengo CDC) Junts per Catalunya ize-neko zerrenda aurkeztu zuen, Carles Puigdemont



buru zela. Beste aldetik, ERCek eta CUPEk euren hautagaitza propioak aurkeztu zituzten. Hautagai zerrendetan, preso edo erbestean zeuden pertsonak aurkeztu zituzten; besteak beste, Puigdemont bera (JxCat), Oriol Junqueras (ERC) eta Jordi Sànchez (JxCat).



Hauteskunde horien parte hartzea % 79,09koa izan zen, inoizko altuena. Alderdi independentistek guztira botoen % 47,5 eskuratu zuten, baina Cs izan zen alderdi bozkatuena, botoen % 25,35ekin. Hala, independentistek jarraitzen zuten gehiengo izaten parlamentuan.

JxCat eta ERC akordio batera heldu ziren: Parla-

mentuko presidentetza ERCko diputatuena izango zen, eta Generalitateko presidentetza Puigdemontena. Azken hori erbestean zegoenez, Auzitegi Konstituzionalak Presidente izendatzeko modu bakarra Parlamentura fisikoki aurkeztea zela ezarri zuen, inbestidura telematikoak debekatuz. Ondorioz, eztabaida piztu zen ERCko eta JxCateko kideen artean gobernuaren eratzeko. Lehenengoen, jarraia pragmatikoagoarekin, gobernu eraginkor baten eraketaren alde egiten zuten. Bigarrenek, presidente legitimoa itzultzea defendatzen zuten eta, beraz, Espainiako Gobernuaren eta Auzitegi Konstituzionalaren berriro desafiatzea.

Egoera horretan, Jordi Sánchez presidente izendatzeko proposatu zuen JxCatek, baina ez zioten espetxetik ateratzen uzten. Hori zela eta, Jordi Turull proposatu zuten, baina inbestiduran CUPEk ez zion babesik eman. Hurrengo egunean, 2018ko martxoaren 23an, Turull espetxeratu zuen Epaitegi Gorenak, beste bi kontseilari ohiekin batera. Azkenean, Quim Torra izendatu zuten presidente, baina CUPren abstentzioarekin.

PROZESUARI EPAIKETA

2019ko otsailaren 12an hasi zen independentzia prozesuagatik espetxeratutako kontrako epaiketa. Urriaren 19an ateratako behin betiko epaiak 9 eta 13 urteko kartzela zigorrak ezartzen zizkien;





desobedientzia, sedizioa eta funts publikoak bidegabe erabiltzea akusatuak. Horren aurrean, errepideak eta trenbideak moztu zituzten hainbat eta hainbat manifestarik, baita Bartzelona-El Prat aireportua kolapsatu ere. Istilu gogorak jazo ziren, eta 194 lagun atxilotu zituzten.

2019ko abenduan, Kataluniako Epaitegi Gorenak Quim Torra kondenatu zuen, desobedientzia delitua leporatuta, Hauteskunde Batzorde Zentralaren aginduei muzin egiteagatik. Izan ere, Generalitateko Jauregian «Llibertat presos polítics i exiliats» jartzen zuen pankarta handi bat zegoen eskegita lokarri hori batekin, eta hori kentzea agindu zioten. Epaiarekin, hautetsi gisa kargu publikoak eta gobernu funtzioak betetzeko inhabilitatu zuten. Hortaz, ezin zuen presidente moduan jarraitu, eta Pere Aragonés presidenteordeak ordezkatu zuen presidente interino gisa.

Bestalde, Espainiako estatua hainbat aldiz saiatu da Carles Puigdemont eta beste erbesteratuak estraditatzeko, haien kontrako euroaginduak jarritz.

Baina estatuek uko egin diete eskaerei. Horrez gain, Òmnium Culturalek salatu zuenez, 2.500 lagun izan dira Katalunia jazarriak 2017ko irailaren 20tik aurrera.

Harrezkero, Kataluniako independentzia prozesua etenda gelditu da, mugimendu independentistaren baitako desadostasunak tarteko. Hala ere, prozesuak bere helburua, independentzia, lortu ez arren, hainbat irakaspen ematen dizkigu nazio askapena bultzatzeko prozesuen aurrean Estatuak izan dezakeen jokabideen aurrean. Euskal Herriko azken hamarkadetako historiak jada adierazi zizkigun zenbait gako; baina oso ezberdinak izan dira Katalunian jorrotutako bidea eta baliatutako borroka moldeak. Horrenbestez, Kataluniako esperientzia kontuan hartu beharrekoa da nazio askapenerako prozesuari berrekin nahi badiogu.



Endavant antolakundearekin solas egin dugu, Països Catalans-eko mugimendu iraultzailearen ibilbidea inguruan. Mugimendu iraultzailearen egungo egoera, estrategia eta etorkizuneko erronkak izan ditugu hizpide elkarrizketan. Era berean, klase ikuspegitik egungo Països Catalans-en egoera eta bertako langile klasea zein eragile politikoak aurkitzen diren ataka ulertzeko klabeak eman dizkigu Endavant-ek.

Zelan sortu zen Endavant? Zein dira bere aitzindariak?

Endavant 2000. urtean sortu zen. Gure aitzindari zuzena Plataforma per la Unitat d'Acció (PUA) da. Azken hori asanblada eta kolektibo lokaletan antolatzen zen 90. hamarkadaren amaierako koordinadora zen. Bere oinarritzko helburu organitzatiboa zen aurreko urteetan protagonista izan zuen independentismo iraultzailearen barneko banaketekin amaitzea eta, aldi berean, Esquerra Republicana de Catalunya (ERC) espazio horretan emandako hutsunea betetzea ekiditea.

PUA-k mugimendu independentista iraultzailearentzako izaera positiboko iraultzea suposatu zuen arren, batez ere, zenbait di-

namika mobilizatzaile eta sozial aldatzerakoan, huts egin zuen bere batasun helburuan. Gainera, antolakuntza eta lidergo arazoak zirela medio, izaera nazionalako antolakunde gisa birfundatzeko apustua egin zuen. Horrela, asanblada eta kolektiboen bitarteko koordinazioa alde batera utzi, eta Endavant-en sorrera prozesuari ekin zitzaion.

Endavant-en birfundazio prozesuarekin batera, Esquerra Independentista (EI) barne-eztabaida batean murgilduta zegoen. "Procés de Vinarós"-en bitartez, mugimenduaren zati bat kontsentsu berrien pean birfundatzeko asmoa zuen. Prozesu horrek, egiatz, izaera mugatuko kontsentsuak sortu zituen arren, Esquerra Independentistara batu ziren belaunaldi berrien potentzialtasuna antzemateko balio izan zuen.



"Endavant 2000. urtean
sortu zen. Gure
aitzindari zuzena
Plataforma per la Unitat
d'Acció (PUA) da."

Epe ertainean, printzipio ideologiko berdinen eta partekatutako estrategia politikoaren pean espazio politiko koordinatu eta bateratua marrazteko aukera eman zuen. Era horretan, prozesu horretako bi akordio nagusiak honako hauek izan ziren: alde batetik, Esquerra Independentistako antolakunde antierpresiboren Alerta Solidària-ren sorrera,

Comités de Solidaritat amb els Patriotes Catalans-en erreleboa hartu zuena; beste aldetik, izaera herrikoiko munizipalismoaren bultzadari esker, azken horrek aurrekariak izan zituen arren, Candidaturas d'Unitat Popular (CUP)-en garapena ahalbidetu zen.

Zein dira Endavanten helburu nagusiak?

Endavanten helburu estrategikoa Països Catalans-en errepublika independente, sozialista eta feminista da. Horretarako, herri batasunaren estrategia garatzen dugu; boterea hartzeko gaitasuna duen langile klaseak zuzendutako bloke historikoaren gorpuzteko estrategia, alegia. Egungo testuinguruan, frantziar eta espainiar estatuak kapital internazionalak eta nazionalak bere dominazioa gauzatzeko dituen tresna nagusiak direla deritzogu. Hori dela eta, autodeterminazioaren aldeko borrokak, dominazio-sistemaren emendakina hartuta, izaera politikoa bereganatzen du. Horren ondorioak bakarrik langile klasearen lidergoaren eskutik gauzatuak izan daitezke. Gauzak horrela, boterearekiko deman aritzeko gaitasuna duen klase herrikoien bloke historiko berriaren gauzapeña bakarrik programa sozialista eta feminista baten bitartez eman daitekeela ondorioztatzen dugu. Horrekin batera, Països Catalans-en independentzia eta burujabetza politikoaren eta ekonomikoaren bitartez soilik eraman ahalko da aurrera eraldaketa sozialista eta feminista.

Zein dira Endavant-en ekintza esparruak?

Une honetan, Endavant-en funtzio nagusia borroka fronte ezberdinen garapen eta lanketa taktiko-estrategikoa dela deritzogu. Horren garapenak borroka sendoko hamarkadaren ostean Països Catalans-en ematen den desmobilizazio egoera orokortuarekin apurtzera eramane behar gaitu, klase kontzientzia handituz kapitalismoa antolakuntza sozialerako aukera bakar gisa desnaturalizatzeko. Horregatik, Endavant-etik borroka feministan, etxebizitzaren aldeko borrokan, lan esparruko borrokan, borroka instituzionalean, borroka ekologistan eta eraikuntza nazionalari dagozkion borroka esparruetan dihardugu. Borroka fronte bakoitza antolakuntzaren baitan ditugun barnebatzordeei dagokie. Horiek, alde batetik, antolakunde gisa aurrera daramagun lana dinamizatzen dute eta, bestetik, fronte ezberdinetan aritzen diren militantzia koordinatzeaz arduratzen dira.

Zein izan ziren antolakuntza mailan burutu zenituzten lehenengo urratsak? Zelako garapena izan du antolakundeak eta zelan dago gaur egun?

Endavant-en sorrerarako behar nagusietako bat asanblada eta kolektiboen koordinadora bat izatetik benetako antolakunde nazional baten garapenera igarotzea bazen ere, bilakaera horrek denbora eta esfortzu handia behar izan zuen. Antolakundearen lehenengo hamar urteetan zehar oinarriari begirako izugarritzko lana eginda, egungo Esquerra Independentista sortzeko atal erabakigarria izanda eta nazioaren zati handienaren borroka sozialetan garrantzitsuak izanda, izaera lokaleko dinamika izan ziren antolakundean ohikoenak. Nazio mailako kohezio gabeziak eta zuzendaritza nazional organoen eskasiak antolakuntza nazionalaren garapena zaildu zuten.

Hala ere, 2012tik aurrera, antolakuntzari begirako aldaketa garrantzitsuei ekin zitzaion, bai e-

giturari begira erabakitze ahalmen eta ardura politiko handiagoa zuen zuzendaritza batzorde nazionalarekin, bai zuzendaritza organoetako eztabaida dinamiken aldaketekin. Horretarako, hainbat jardunaldi eta formakuntzari begirako ekimen zein antolakuntza garapena gauzatu ziren; hainbat urte iraun zituen lana. Horren emaitza izan ziren eztabaidarako metodo argiak eta militantziak partekatutako apustuak dituen antolakunde kohezionatuagoa. Egungo gaitasunekin eta ditugu tresnekin militantzia biderkatzeko aukera dugu, kohezio hori galdu gabe eta ematen diren beharrezko aldaketetara moldatzen jakinda.

Zer taldek osatzen dute Esquerra Independentista? Zelakoa izan da maila organikoan zuen harremana gainerako taldeekin euren hastapenetan? Eta gaur egun?

L'Esquerra Independentistako antolakundeak ez ginen koordinatzen hasi koordinazio espazio batean 2011-2012ra arte.





Coordinadora Nacional de l'Esquerra Independentista (CNEI) zeritzon espazioan honako hauek hartzen zuten parte hasiera batean: Endavant, 1987an sortutako Maulets gazte antolakundea, 2002an PUA eta Endavantetik zetozen militante gazteek sortutako CAJEI gazte antolakundea. Gainerako antolakundek era puntualean parte hartzen zutenez gero, lehenengo hastapenak zailak izan ziren.

Gaur egun, l'Esquerra Independentista Alerta Solidaria antolakunde antierrepresiboak, Arran gazte antolakundek, COS sindikatuak, CUP politika instituzionalako antolakundek, Endavant antolakunde politikoak eta SEPC ikasleen sindikatuak osatzen dute.

Antolakunde guztiak, egun, Taula l'Esquerra Independentista (TEI)-en bitartez koordinatzen gara. Marko hori da antolakunde guztien artean eztabaida eta erabaki politikoak hartzeko espazioa. Bertan onartzen dira es-

parru ezberdinetan aurrera eramane beharreko ildo politikoak; hala nola, Diada nazionalak eta elkarlanerako dinamika zehatzak.



"Endavant-en funtzio nagusia borroka fronte ezberdinen garapen eta lanketa taktiko-estrategikoa dela deritzogu."

Horretaz aparte, l'Esquerra Independentistaren parte direla aldarrikatzen duten bi antolakunde daude, nahiz eta ez duten TEI mugimenduaren koordinazio eta zuzendaritza espazioan partetik hartzen. Alde batetik, Movi-ment de Defensa de la Terra (MDT)-ren birfundaziotik sortutako Poble Lliure dugu. Birfundazio horretara arte TEI-ren par-

te izan zen eta ez dator bat Endavantek proposatutako ildo taktiko-estrategikoarekin.

Bestetik, Arranen esisio batetik sortutako Forja gazte antolakundea dugu. Poble Lliure-ren proposamen politikoa partekatuta, praktikan honen gazte antolakunde gisa funtzionatzen du horrek.

Zelan ulertzen duzue zuen proiektu politikoaren gauzapenerako orduan bide parlamentarioaren eta iraultzailearen arteko harremana?

Bide parlamentarioaren eta iraultzailearen arteko harremanaz haratago, Esquerra Independentista-ren proiektu politiko iraultzaileak adierazpen instituzionala izan behar duela deritzogu. 2000. urteko lehen hamarkadaren hasieran, Endavant izan zen CUP apustu instituzional munizipalistaren bultzatzaile nagusienetarikoa, munizipalismo herrikoia den proposamen

politikoa garatuz antolakuntza apustutik haratago. Apustu horren hazkuntza eta emaitza onek CUP antolakunde politiko gisa osotzea ahalbidetu zuen, baita izaera municipalistetik haratagoko apustu elektoral ezberdinetan parte hartzea eragin ere 2012ko hautagaitzara arte. Hautagaitza horri esker, Kataluniako Parlament-ean 3 diputatu eskuratu ziren.

Pauso horiek guztiak harreman dialektiko baten bitartez eman ziren antolakundearen barnean zein kanpoan, eztabaida anitzekin, posizio zailekin eta garaipen zein porrotekin, apustu politikoei dagokienez. Kataluniako Parlament-ean sartu eta hamar urte geroago, ondoriozta dezakegu apustu instituzionalak militantzia haztea eragin, eta Esquerra Independentistaren eraginaren handitzea ekarri duela.

Horren eskutik, 30 urtetan zehar eta burgesiaren interesen kudeatzailea zen Kataluniako alderdi nagusiaren, hau da, Convergència i Unió (CIU)-ren ia erabateko deuseztapena eman zen, baita trantsiziotik estatuari egin zaion emendakin nagusia izan den urriaren 1aren gauzapena ere. Horrek tentsioak eta zailtasunak ere eragin ditu. CUP-en hazkuntzak sektore erreformisten sarrera eta eragiteko gaitasuna handitu du, Kataluniako 4 probintzietan mugimenduaren erregionalizazioa ere eraginez. Oraindik lantzen dihardugun harreman dialektiko horrek Endavant-ek publikoki CUP-en zenbait apustu kritikatu izana eragin du. Hala ere, gure Unitat Popular estrategiaren baitan, antolakuntzaren apustuaz haratago, mugimendu iraultzaile baten fronte elektoralean garapen ideologi-

koaren, estrategikoaren eta formatiboaren berezko lana sortzea eragin du.

Zer jazarpen mota pairatu duzue zuen jardun politikoagatik? Zelan baldintzatu du jazarpenak zuen jarduna?

PUA-rekin gertatu bezala, jazarpena konstante bat izan da Endavant-en sorreratik. Hasteko, Endavant sortu eta hilabete gutxira, Euskadi eta Askatasunaren Bartzelona komandoaren atxilotaketa gertatu zen. Horrek antolakundea zuzenean kolpatu zuen, atxilotutako batzuen zuzeneko harremanengatik zein gure espazio politikoak pairatu zuen kriminalizazioarengatik.

Endavant-en lehenengo urteetan, oso jazarpen kasu gogorrak eman ziren, jazarpen polizial eta judizial maila altua izan zutenak; Gràciako hiruak edota Torà kasua, besteak beste.

Dena den, horrek eragin soziala izan zuen, eta hurrengo urteetan emango ziren kasu errepresiboen aurreko lana gidatu zuen kultura antierrepresiboaren garapena ahalbidetu zuen. 2000. urteko lehen hamarkadako hastapenak eta gero, jazarpenak antolakundean eragin berezia izan duen bi momentu aipatu behar dira. Lehenengoa, 2012ko greba orokorren ostean eman zen; kasu errepresibo asko suposatu baitzuten, bai greban bertan, bai krisi ekonomikoari aurre egiteko gerorako borroka sozialeko jardunaldietan. Bigarrena, Katalunian 2017ko urriaren 1ean gauzatu zen erreferenduma eragin zuten gertakarietatik abiatuta, Procès-eko preso politikoen sententzien aurka burututako mobilizazioa arte.

Periodo horrek Endavant eta

osotasunean mugimenduko militanten askoren epaiketak eragin zituen. Endavantek izan zuen proiektio politikoarengatik eta CUP-ekiko zuen loturagatik bide eman zitzaion antolakundearen aurkako errepresioari, zuzendaritzaren aurkako epaiketari edota ilegalizazioari ateak irekiz. Hori guztia Procès-eko sententzien aurkako mobilizazioetara deitu eta aste oso batean zehar Kataluniako kale guztietan antolatu ziren antolakunde independentisten aurka okupazio indarrek eta espainiar justiziak igorri zituzten mehatxuen testuinguruan kokatu beharra dago.

Zer irakurketa egiten duzue Països Catalans-eko egungo egoera politikoaren inguruan?

Erregimenaren egonkortze momentuan kokatzen gara, nagusiki. Erregimenaren eta ekonomia-aren krisi uneek, mobilizazio sozial eta aldaketa politiko garrantzitsuak eragin zituzten; "statu quo"-a ezegonkortzea eta ezkerreko aukera politikoan hazkuntza ahalbidetu zituzten. Estatu-ako zein gobernu autonomiko eta hiri nagusien izaera erreformistako gobernuen etorreraren aurrean, apurketarako aukera hauek mugatuz joan dira. Izan ere, gobernu horiek, langileen tzako behar bestekoa izan gabe, iritzi publikoan neurri sozialak eta mobilizazio soziala indargabetzeko gutxieneko kuxin soziala sortzea lortu dute.

Horrela, gobernuen arteko pakismoak, eremu sozialaz haratago, PSOE-ren berrindartzea eragin du erreformako indar politiko gisa, Podemos-eko bere aliatuekin batera. Horrek izaera elektoraleko egonkortze bat eragin du, espainiar estatuan bi

aukera politiko bakarrik utziz. Alde batetik, ezkerreko zenbait alderdi soberanisten babesa duen PSOE eta Podemos-en erreforma. Eta, bestetik, lehendik aipatutako estatuko kuxin sozial hori deuseztatu, eta emakumeen, migratzaileen eta LGTBI kolektiboaren eskubideen aurkako erreforma erreakzionarioa garatu nahi duen eskuina.

Eskema hau bai País Valencià, bai Illes Balears-etan birproduzitzen ari da. Izan ere, bertan azken zazpi urteetan gobernatu duten PSOE, Podemos, ezker soberanista zein autonomista, MÉS eta Compromís-ek osatutako tripartit ezberdinak ez dira gai izan PP-rengandik ezberdintzeko, inolako erreforma politikorik planteatzeko.

Katalunian, bestalde, aldaketa garrantzitsua eman da indar politikoen artean. Hala ere, "procés sobiranista" ERC-ren aukera politikoen artean erabat geldirik dago. Izan ere, azken horren helburua Generalitateko gobernuan mantentzea denez gero, ahalik eta egon kortze handienaren bila dabil estatuarekiko paktua bilatuz. Bien bitartean, Junts ez da gai agertoki politikoan jokatzeko, barne-mailan dituen arazoak eta sektore ezberdinen arteko demak medio.

Bien bitartean, hezkuntza publikoan estatuaren partetik aurrera eramandako hizkuntza katalanaren aurkako ofentsiba dinamikaren aurrean aurkitzen gara. Nahiz eta estatua Kataluniatik hasi den, ofentsiba hori hezkun-

tza zentroetan hizkuntzaren aukeraketa askearen inguruko figura oso arriskutsua garatzea ahalbidetzen ari da.

Bestalde, Catalunya Nord-en arazo nagusia eskuin muturraren hazkuntza da, lurralde guztian indar elektoral nagusia baita Perpinyà-neko alkatetza lortuta. Faxistak frantziar estatuak Catalunya Nord-ekiko duen utziketaz aprobetxatzen dira, arrazismoarekin, proposamen ekonomiko prekarizatzailearekin eta estatu zentralaren berrindartzearekin erantzuteko.

Alor ekonomikoari dagokionez, Europar Batasuna Next Generation fondoen eta inbertsioak ahalbidetzearen bitartez, langile klasearen prekarizazioa sustatzen ari diren aldaketak zuzen-



tzen ari dela ikus dezakegu. Horrela, jada handia den turismo-arekiko mendekotasuna areagotzen ari da, batez ere, Illes Balears, els Pirineus eta la Costa Daurada-n. Era berean, energia-rekin lotutako makro-azpiegiturak sustatzen ari da, bai Tunez eta Frantzia konektatu behar dituen Midcat deritzon gaseoduktoaren bitartez, baita València-ko Volks-wagen-en bateria elektrikoen izugarritzko fabrikak ezartzea sustatuz ere.

Elementu horiek garamatzate era irmoagoan defendatzera langileon bizitza justua bermatzeko bide eraginkor bakarra Països Catalans-en subiranotasun ekonomikoa eta sozialismoaren eraikuntzan oinarritutako eredu sozio-ekonomiko-a direla. Horrek erakusten digu, errealitatean eragiteko orduan, planifikazio ekonomikoa eta sektore estrategikoen jabetza publikoaren beharra dugula, eta horrek planetako krisi ekologikoarekin duen harremana azaltzeko orduan ahaleginak indartu behar ditugula.

Zer balorazio estrategikoa egiten duzue 20 urtetan egin duzuen ibilbidearen inguruan? Zer puntutan hasi zineten eta non zaudete orain?

Endavant-ek izugarritzko bilakera izan du 22 urte hauetan zehar. Hala ere, gure sorkuntzako printzipio ideologikoek bere horretan dira eta baliozko izaten jarraitzen dute. Endavant Esquerra Independentistaren mugimendu logika aldatzeko atal klabea izan da. Izan ere, bere sorkuntzaren aurretik argia zen mugimendua noraeza, aukera erreformistengatik xurgatua izateko arriskua zuelarik edo eszizio jarraituen dinamika batean mur-

giltzeko arriskua. Aitzitik, 2000. urteko lehen hamarkadatik aldatu egin da dinamika. Arran-en eszizio bi eman diren arren, Endavant Arran-en eta SEPC-ren batasunerako pieza klabea izan da, mugimendu koordinatu eta kohesionatu bat eraikitze aldera. Horretaz aparte, urteetan zehar egin ditugun analisi gehienak zuzenak izan dira; esaterako, estatuarekiko konfrontaziorako proposamen soberanistaren ahuldadeak. Analisi horien arazoa da eragiteko duten gaitasun erreala, eta sistemarekiko alternatiba erreal gisa ikusarazteko proposamen erreal gisa horiek zelan transformatu.

Zein dira Endavant-en paper politikoa eta bere erronkak egungo testuinguru politikoan?

Endavant-ek bi erronka nagusi ditu ortzimugan. Hasteko, gure analisi eta indar zein aliantza politikoak mahai gainean jartzea desmobilizazio orokortua apurtzeko. Ezin gara langile masak mobilizatzen hasteko zain egon krisia larriagotzeagatik. Ahalik eta txinparta gehien sortu behar dugu sua pizteko. Zentzu horretan, ezin diogu suminari dei egitera edo sistemaren arazoak eta horrek langileengan zelan eragiten duten azaltzera mugatu.



"Endavant gizarte katalanean posizio iraultzaileetatik eragiteko espazio politiko baliagarrien gisa aurkeztea"



Proposamen politiko eta mobilizatzailea sortu behar dugu, eragile baliagarri gisa aurkeztuz bigarren erronkara igaro ahal izateko; hain zuzen ere, Endavant gizarte katalanean posizio iraultzaileetatik eragiteko espazio politiko baliagarrien gisa aurkeztea. Horretarako, beharrezkoa suertatzen zaigu analisi egokiena izatea, proposamen politiko egokiena izatea, lurraldean hedapen hona izatea eta sozialki esku hartzeko azpiegiturarik onenak izatea. Endavant-etik Països Catalans-eko etorkizuneko alderdi komunista eraikitzeko giltzarria izatea dugu buruan, herri batasuna zuzendu behar duen eta estatuarekiko botere lehian aritu behar den espazio politiko gisa. Hori da etorkizunak dakarkigun papera.



Jarki

INDEPENDENTZIA • SOZIALISMOA



jardun_koordinadora



jardun_koordinadora



JARDUN_KOORDINADORA
@JardunK



www.jardunkoordinadora.com